

ISSN: 2530-6561
2019ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak

Efren Areskurrinaga Mirandona
Mirene Begiristain Zubillaga
Eduardo Malagón Zaldua

Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak

Efren Areskurrinaga Mirandona.
Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua.

Mirene Begiristain Zubillaga.
Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua.

Eduardo Malagón Zaldua.
Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak

Egileak: Eflen Areskurrinaga Mirandona, Mirene Begiristain Zubillaga, Eduardo Malagón Zaldua

hegoak zabalduz - 10. zk. 2019ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Elikadura-sistema globalaren eraketa	7
2.1. Herrialde garatuen nekazaritza-politikak	8
2.2. Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) Nekazaritza Akordioa (NA)	8
2.3. Merkataritzari Loturiko Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioa	10
2.4. Agroerregaien liberalizazioa eta sustapen-politikak	10
2.5. Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenak: Transatlantic Trade and Investment Partnership (TTIP) eta Comprehensive Economic and Trade Agreement (CETA)	11
2.6. Egitura Doikuntzarako Programak (EDP) eta kanpora begirako nekazaritza-eredua	11
2.7. Nazioarteko korporazioen pisu hazkorra	12
3. Nekazaritzaren garapen ereduak: Iraultza Berdetik Elikadura Burujabetzara eta elikadura-sistemaren ikuspegi feministara	13
3.1. Iraultza Berdea	14
3.2. Nekazaritza jasangarri baterako bide berriak: intentsifikazio jasangarria eta "Climate Smart Agriculture"	15
3.3. Modernizazio eta nekazaritza hustuketa prozesuen aurrekoerantzun politikoa: landa-garapena	16
3.4. Nekazaritzaren eta elikaduraren proposamen eraldatzailea: Agroekologia	17
3.5. Elikadura Burujabetza	18
3.6. Elikadura-sistemaren ikuspegi feminista	19
4. Tokiko elikadura sistemen garapena: trantsizio agroekologikorako bidea aztertzen	21
4.1. Tokiko elikadura-sistemaren kontzeptua xehetuz: Elikadura Sare Alternatiboak	21
4.2. Merkaturatze Bide Laburrak: aniztasuna eta panorama	22
4.2.1. Merkaturatze Bide laburren formak eta datu batzuk	22
4.2.2. Merkaturatze-bide laburren potentzialtasunak eta erronkak	23
5. Ondorioak:Trantsizio agroekologikoetarako gakoak	25
5.1. Elikadura Burujabetzaren bidea	25
5.2. Tokiko elikadura-sistemak eraikitzen	27
Bibliografia	28

Abstracta: Globaletik lokalera bidea eginez elikadura-sistemen eraketa azaltzea da lan honen helburua. Globalizazio-prozesu neoliberalak azken hamarkada hauetan zehar elikadura-eredu industrial globalizatuaren aldeko bide sendoak eraiki ditu. Alabaina, elikadura-sistema globala eratzearekin batera, nekazaritzaren produkzioaren ereduak aldatu dira, jardueraren modernizazioaren izenean. Hala ere, eta nahiz eta produkzioa handitu, berrikuntzaren indarrek arazoak sortu izan dituzte, bai lurraldearen sostenguari ikuspegitik, bai ingurumen-oreka eta pertsonen bizitzaren duintasuna kolokan jarri izan direlako.

Horrek guztiak nekazaritza- eta elikadura-eredu alternatibo baten paradigma garatzea bultzatu du: Elikadura Burujabetza. Eremu globalaren dinamikak eta nekazaritza-politiken erabaki horiek guztiek eragin itzela izan dute tokiko baserritarrengan eta elikadura-sistemen joeretan, eta euren garapenean argi-itzalak sortu dituzte. Lan honetan, agroekologiaren paradigma oinarritzat hartuz, ondorioztatuko dugu tokiko elikadura-sistemak garatzeko ezinbestekoa dela Nekazaritza Akordioari dagokionez derrigorrez bete beharreko neurriak bertan behera uztea, eta onartzea herrialdeen Elikadura Burujabetzaren eskubidea eta elikadura-sistema bera ikuspegi feministatik berraztertzea beharrezkoa dela. Maila pragmatikoan ere zenbait adibide eta tresna aipatuko ditugu, eskubide hori jorrazteko eta agroekologiaren estrategia askatzailearen gakoak mahaigaineratzeko.

Hitz gakoak: elikadura-sistema, nekazaritza-politikak, Elikadura Burujabetza, elikadura-sare alternatiboak, trantsizio agroekologikoa.

Abstract: The aim of this paper is to explain the built of food systems from global to local. During last decades, the process of neoliberal globalization has generated strong basis for the development of an industrialized and globalized food model. However, agrarian production model has suffered radical changes under the pretext of modernization. Despite the growth of production, innovations have generated tensions and problems, putting both the perspective of territorial balance and the dignity of people's lives at risk.

These conflicts have boosted the emergence of a paradigm for an alternative agriculture and food: the Food Sovereignty. Global dynamics and agrarian policy decisions have caused a huge impact in peasantry and local food system trends. In this work, following up the agroecological paradigm, we will conclude that the development of local food systems needs to overcome the asymmetric rules of the AoA and recognize the right to Food Sovereignty and, rethinking the food system from a feminist perspective. In a more practical way, different experiences and examples are mentioned, as paths to develop this right and so identify the clues for an emancipating strategy from agroecology.

Keywords: food system, agricultural policies, Food Sovereignty, alternative food networks, agroecological transition.

Glosarioa

MLJIBA	Merkataritzari Lotutako Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioa
AEB	Amerikako Estatu Batuak
BKG	Balio Kate Globalak
CETA	Comprehensive Economic and Trade Agreement
CSF	Committee on Food Security /Elikadura Segurtasunerako Batzordea
CSA	Climate Smart Agriculture / Ingurumenari Egokitutako Nekazaritza
EB	Europako Batasuna
EBU	Elikadura Burujabetza
EDP	Egiturazko Doikuntza Programak
EEE	Europako Ekonomia Erkidegoa
ELGE	Ekonomia Laguntza eta Garapenerako Erakundea
ESA	Elikadura Sare Alternatiboak
ESE	Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea
FAO	Food and Agriculture Organization / Elikadura eta Nekazaritza Erakundea
FAOSTAT	Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen Datu Basea
GATT	General Agreement on Trade and Tariffs/ Mugasari eta Merkataritza Akordio Orokorra
GEO	Genetikoki Eraldatutako Organismoak
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundeak
GLT	Gutzizko Laguntzaren Tamaina
IEP	Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea
LVC	La Via Campesina
MB	Munduko Bankua
MBL	Merkaturatze Bide Laburrak
MME/OMC	Munduko Merkataritza Erakundea
NA/AoA	Nekazaritza Hitzarmena
NB	Nekazaritza Batzordea
NBE	Nazio Batuen Erakundea
NGE	Nazioz Gaindiko Enpresak
NMF	Nazioarteko Moneta/Diru Funtsa
NPB	Nekazaritza Politika Bateratua
ONL / Farm Bill	Oinarrizko Nekazaritza Legea
SI	Sostenible Intensification / Intentsifikazio Iraunkorra
TPP	Transpacific Partnership / Pazifikoko Bi aldeetako Akordioa
TES	Tokiko Elikadura-sistemak
TTIP	Transatlantic Trade and Investment Partnership

1. Sarrera

Nahiz eta gizadiaren biziraupenerako oinarritzakoak diren elikagaien hornikuntza bere eskuetan egon, azken mendeetan nekazaritzaren pisua modu gradualean murriztu da, munduko herrialde aurreratuenetako ekonomian eta gizartean kapitalismoa aurrera zihoan heinean. XIX. eta, bereziki, XX. mendean zehar, nekazaritza tradizionalaren krisiak nekazaritza-jardueren eta landa-guneen eraldaketa sakona ekarri du. Modernizazio prozesu batek bultzatuta, produkzio ereduak transformatu dira, kapital-metaketa eta lan-beharren murrizketaren ondorioz: kanpo-baliabideen ekarpena hazi da, lurra erabiltzeko moduak eta jabego-ereduak aldatu dira, eta marko politiko eta instituzionalak eraldatu dira. Horren ondorioz, ustiapen kopurua murriztu, enpleguak deuseztatu eta lehen sektorearen pisu erlatiboa jaitsi da ekonomian; bestalde, produkzioa eta produktibitatea handitu dira, ustiapenetatik kanpo lortutako input eta energia fluxuen ekarpenari esker.

Herrialde garatuetan, II. Mundu Gudaren ostean, prozesu hori areagotu egin zen, gerrak eragindako eskasiaren aurrean teknika eta labore berriak garatzeko apustua eginez, nekazaritza tradizionalaren etekina handitzeko. Horretarako, nekazaritzako zereginen industrializazioa eta mekanizazioa edo errendimendu handiko bariedade berriak bilatzera jo zuten. Nekazaritza intentsiboa, mekanizatua, eta salgai kimikoen erabilera (ongarriak, pestizidak...) sustatu ziren, baita errendimendu handiko labore-bariedade berrien inplementazioa eta modu genetikoan eraldatutako bariedadeak ere. 1960ko hamarkadatik aurrera, antzeko prozesua gauzatu zen garapen bidean dauden herrialdeetan, Iraultza Berdea deritzon prozesuaren ondorioz. Bestalde, ezin dugu ahaztu, halaber, modernizazio horren bultzada definitiboak aurrera egiteko globalizazioak eragindako indarren eragina. Horretan, herrialde garatuetan aplikaturiko nekazaritza-politika publikoen orientazioak sistema horren oinarriak finkatzen lagundu du. Elementu horiek guztiek garaiko nazioarteko nekazaritza- eta elikadura-sistemaren garapena ekarri dute, eta horri lotuta doazen arazoak eta tentsioak areagotu dituzte.

Osagai horiek guztiak aztertzeko, lan honek lau atal nagusi jasotzen ditu. Lehendabizi, elikadura-sistema globalaren eraketa azalduko da, eta eraketa horretan zenbait erakundek garatutako politikak eta akordioek jorratutako bidearen ondorioz hedatutako kanpora begirako nekazaritza-eredua ulertu ahal izango dugu. Bigarrenik, nekazaritza-garapeneko ereduetan gertatu diren aldaketak azalduko dira, Iraultza Berdearen paradigmatik abiatuz eta Agroekologiaren proposamenera bidea eginez, Elikadura Burujabetzaren eredu alternatiboak eta ikuspegi feministak ekartzen dituzten aukerak eta eztabaidak mahaigaineratuz. Hirugarrenik, Elikadura Burujabetzak tokiko elikadura-sistemen garapenean duen lekua azalduko da, zenbait kontzeptu eta adibide eskainita, eskuliburu honetan globaletik tokikora egiten dugun ibilbide honen puzzlea osatzeko. Azkenik, zenbait ondorio jasotzen dira, elikadura-sistemen krisialdia eta dinamiketan baliagarriak izan daitezkeen gako askatzaileak azpimarratzeko.

2. Elikadura-sistema globalaren eraketa

Globalizazio-prozesu neoliberalak azken hamarkada hauetan elikadura-eredu industrial globalizatuaren aldeko bide sendoak eraiki ditu, bai Iparraldean bai Hegoaldean. Horrek aldaketa nabarmena eragin du elikaduraren eta nekazarien funtzio sozialean: azken hori alboratu, elikagaien merkantilizazio prozesua bultzatu, eta elikagaiak salgai bihurtu ditu, hori baita mozkin lortzeko tresna.

Azken hamarkadetan gertatutako globalizazioaren ondorioetako bat elikagaien nazioarteko merkataritza-fluxuak areagotzea izan da. 1961-2016 aldian, munduko zitu-produkzio fisikoa 3,6 aldiz biderkatu da; fruituena, 4,3 aldiz; barazkiak, 5,4 aldiz; eta haragiarena, 4,6 aldiz. Bitartean, zituen nazioarteko merkataritza 5,5 aldiz biderkatu da, eta haragiarena, 13 aldiz¹. Hala ere, munduko zituen ekoizpenaren % 15 nazioarteko merkatuetan trukatu da. Baina portzentaje txiki horrek pisu erabakigarria dauka produktu askoren prezioa finkatzeko orduan, eta baita, Iparraldeko herrialdeen *dumping* politiken ondorioz, hegoaldeko hainbat herrialdeen produkzio aukeretan ere.

Marko politiko-instituzionalaren analisiaren ikuspegitik, nazioarteko elikadura-sistemaren eraketan hiru prozesu izan dira nagusi XX. mendean erdialdeaz geroztik. Lehenengoa, herrialde garatuetako (AEBetako eta Europako, batik bat) nekazaritza-politiken bilakaera. Bigarrena (aurrekoarekin hertsiki

1 FAOren datuak. Ikusi FAOSTAT: [<http://www.fao.org/faostat/en/>].

lotuta), 80ko hamarkadatik aurrera, Muga-zerga eta Merkataritza Akordio Orokorreko (GATT) Uruguaiako negoziatio txandan Nekazaritza Akordioaren (NA) bidez gauzatu ziren nekazaritza arloko ondasunen trukeen liberalizazioaren aldeko politikak. Hirugarrena, 1980ko hamarkadatik aurrera ere Nazioarteko Moneta Funtzak (NMF) eta Munduko Bankuak (MB) hegoaldean ezarritako Egiturazko Doikuntza Programak (EDP).

Nekazaritzako hiru prozesu nagusi horiek eta haiekin batera gertatu zen nazioarteko kapital- eta finantza-mugimenduen liberalizazioak jarraipena izan zuten aurrerago, jabetza intelektualaren babeserako politiken bidez, agroerregaien produkzioa sustatzeko politiken bidez, eta merkataritza askeko kontinente arteko akordioen bidez (gurean TTIP/CETA). Neurri horiek guztiek baldintzatu dute egungo elikadura-sistema agroindustrial globalizatuaren izaera. Ikus dezagun zelan.

2.1. Herrialde garatuen nekazaritza-politikak

1960tik aurrera, AEBek eta sortu berria zen Europar Erkidego Ekonomikoak (EEE) beraien nekazaritza-sektoreak babesteko aurrera eramandako neurriek (muga-zergak, prezio babestuak, dirulaguntza zuzenak, esportazioetarako kredituak eta dirulaguntzak, batez ere) produkzio soberakin handiak sortu zituzten, soberakin horiek nazioarteko merkatuetan diruz lagundu ziren, eta *dumping*eko baldintzetan komertzializatu ziren.

Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) markatu du azken 6 hamarkadetan Europako nekazaritzaren nondik norakoa, Europako nekazaritza babestuz eta haren modernizazioaren eta intentsifikazioaren aldeko apustua eginez. 1962an sortu zen, elikagaien eskaintza eta hornikuntza sustatzeko asmoarekin: herritarren beharrezan zentzuzko prezioetan aseko direla bermatzearekin batera, nekazarien diru-sarrerak bermatzeko. Hamarkada baten ondoren, prezio-politiken ondorio tamalgarriak azaleratzen hasi ziren: Europako nekazaritzak soberakinak metatzen zituen, eta nazioarteko merkatuetara bideratu ziren: nazioarteko prezioak jaitsarazi zituen, hainbat herrialdeetako nekazariak porrotera eraman zituen eta herrialde horien ekoizpenerako auto-hornikuntza gaitasuna murriztu zuen. Bitartean, europar nekazaritzan ustiapenek desagertzen jarraitzen zuten, eta produkzioa eta dirulaguntzak geroz eta ustiapen handiagoetan kontzentratzen ziren.

AEBen kasuan, nekazaritza-politika 1949ko Oinarrizko Nekazaritza Legearen (*Farm Bill* delakoa) bitartez arautzen zen, eta bost urtean behin eguneratzen zen² lege hori. Lege horiek ere prezio bermatuak, ordainketa zuzenak eta esportazio kredituak erabili dituzte AEBetako nekazaritza babesteko. Guda Hotzaren garaian, AEBetako administrazioek sortutako elikagaien soberakinak garapen bidean zeuden herrialdeentzako elikadura-laguntza bezala bideratu zituzten, beren interes geopolitikoak babesteko helburuarekin. Esportazio horiek distortsio handiak sortu izan dituzte herrialde inportatzaileen merkatuetan ere.

80ko urteetatik aurrera eta pentsamendu neoliberalak gailendu izanaren ondorioz, nekazaritza-politikaren eta landa-eremuaren garapenak orientazio-aldaketa handia izan dute, eta, ordutik aurrera, liberalizazio ekonomikorako neurriak lehenetsi ziren mundu osoan. Norabide aldaketa hori, gurean, NPBen askotariko erreformen bidez gauzatu da. Horrela, nekazaritzako errentak babesteko eta eusteko politikak aldatu egin dira prezioei eustetik zuzeneko ordainketetara, ekoizpena zeinahi zelarik (ustez, "merkatua ez nahasteko" eta merkataritzako akordioak betetzeko).

2.2. Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) Nekazaritza Akordioa (NA)

Merkantilizazio eta liberalizazio prozesua areagotu eta hedatu egin zen 1986tik aurrera, nekazaritza-sektorea lehen aldiz sartzean nazioarteko merkataritzaren liberalizatorako negoziatio komertzialetan, GATTen Uruguaiako txandan³. Uruguai Erronda 1994an amaitu zen, nekazaritzako merkataritzaren muga-zergak apurka murrizteko akordio batekin, *Nekazaritza Akordioarekin (NA)*.

2 Gaur egun 2018ko *Agricultural Improvement Act* dago indarrean.

3 Muga-zerga eta Merkataritza Akordio Orokorra (GATT ingeleraz) 1947an sorturiko behin-behineko akordioa da, nazioarteko ondasunen merkataritza liberalizatzeko, eta negoziatio-txanden bidez gauzatzen da. 8 txanda izan ditu, 1995ean MMEk ordezkatu zuen arte, azken txanda Uruguaiako txanda izan zen 1986-1994 bitartean, eta bertan sartu ziren lehen aldiz nekazaritza-produktuak negoziatioan, haien trukeen gaineko babes-neurriak deuseztatzeko.

Adostu zen NAK bi helburu argi zituen: bata, nekazaritza-produktuen nazioarteko merkataritza oztopatzen zuten arauak aldatzea; bestea, liberalizaziorako arau berriak sortzea, muga-zergen jaitsieran oinarrituta. Bi helburu nagusi horiekin, NA honako eremu hauetan egituratzen zen: a) *muga-zerga ez ziren babes-neurriak muga-zerga bihurtzea*; b) *muga-zergen bidezko babes murriztea eta esportaziorako dirulaguntzak desagerraraztea*; c) *merkatuetarako sarbidea*.

a) *Muga-zerga ez ziren babes-neurriak muga-zerga bihurtzea.*

Muga-zerga ez ziren babes-neurri guztiak muga-zerga bihurtzeko eta babesaren gehienekoa zehazteko konpromisoa hartu zen. Konpromiso horri "tarifikazioa" deitu zitzaion, eta berehala jarri zen indarrean. Ordura arte indarrean zeuden babes-neurri guztiak (kuotak, kontingenteak, muga-zergak...) muga-zerga bihurtu ziren, eta, neurri guztien baturaren bidez, herrialde bakoitzaren guztizko laguntzaren tamaina (GLT) zehaztu zen, 1986-89 urteak oinarri hartuta. Herrialde bakoitzeko GLT hori produktuz produktu erabili zen, liberalizazio konpromisoak zehazteko oinarri bezala.

Iparraldeko herrialdeek lortu zuten GLTren kopuru hori finkatzea ordura arteko babes-neurri guztien balioaren nabarmen gaintetik, eta onartu zituzten murrizketa-konpromisoek ez zuten lortu iparraldeko herrialdeetan praktikan indarrean zegoen babes-maila handia jaistea, eta nazioarteko esportazioen buru izatea ahalbidetzen jarraitu zuen. Hegoaldeko herrialdeen kasuan, aldiz, GLTren mugak Iparraldekoen azpitik nabarmen finkatu zituzten, eta konpromiso horiek mugatu egin zituzten herrialde horien ahalmena, nekazaritza arloko politikak ezartzeko orduan. Erabaki horien ondorioz, Hegoaldeko tokiko ekoizleek kanpoko lehia desleial horren mende jarraitu zuten, eta bertako nekazaritza-sektorea kaltetu zen.

b) *Muga-zergen babes murriztea eta esportaziorako dirulaguntzak desagerraraztea.*

Indarrean zegoen muga-zergen babes murriztea eta esportazioari ematen zitzaizkion laguntzak apurka desagerrarazteko konpromisoa jasotzen zituen. Muga-zergen kasuan onartu zen finkatutako GLT gutxienez % 15 murriztea herrialde guztietan, baina % 36ko jaitsierara iristea Iparraldeko herrialdeetan, 5 urteko epean, eta % 21era Hegoaldekoetan, 10 urteko epean. Esportazioetarako dirulaguntzen kasuan, ez zen lortu haiek debekatzea eta desagerraraztea, murrizketarako konpromisoa baino; eta hori ere urria (guztizko gastuaren % 36 edo bolumenaren % 21eko jaitsiera). Are gehiago, murrizketa egiteko adostutako oinarritzko urteak laguntza garaiko urteak izan zirenez, benetan hartutako konpromisoa txikia izan zen, eta, gainera, aurretik laguntza horiek ezarriak zituzten herrialdeek bakarrik jarraitu ahal izan zuten jardun horrekin, gainerakoek ez; horrek herrialdeen artean diskriminazio egoera argia sortu zuen.

c) *Merkatuetarako sarbidea.*

Barne merkatu guztietara inportazio bidezko gutxieneko bolumena sartzea ahalbidetzeko, herrialde guztiek onartu zuten guztizko GLT baino txikiagoa den muga-zerga berezia zehazteko konpromisoa. Gutxieneko sarbide hori produktu horren kontsumoaren edo dagoen inportazio-bolumenaren % 3an zehaztu zen – bietatik handienera –, akordioaren indarraldian zehar % 5era igotzeko konpromisoarekin. Baina horretan ere Iparraldeko herrialdeek sarbide hori produktuen multzoari ezarri ziotenez, eta ez produktu bakoitzari, ez zen neurri eraginkorra izan Hegoaldeko herrialdeen esportazioak handitzeko, baina bai, aldiz, Iparraldeko esportazioak Hegoaldeko merkatu guztietara iristeko.

Beraz, 8 urteko negoziazioen ondoren lortutako benetako emaitza oso urria izan zen, kide diren herrialdeen artean kostu eta etekinen banaketa oso desberdina izan zen, eta liberalizazioaren pisu handiena Hegoaldeko herrialdeetan jauzi zen. Baina NA akordio orokor baten parte zen, derrigor bete beharrekoa eta akordioak berak sortu eta konpromisoak betetzen ez zituzten herrialdeak zigortzeko ahalmen guztia zuen erakunde batek babestua: MME.

Horrela, 1995ean indarrean jarri zenetik, NArekin aplikazioa eta garapena MMEren Nekazaritza Batzordearen esku geratu ziren. Hartutako erabaki horiek derrigorrez aplikatu beharrekoak izan direnez, nabarmen oztopatu dute hainbat herrialde eta nekazari txikiaren jarduna, eta baita milioika pertsonaren elikadurarako eskubidea ere. Izan ere, hitzarmen horren neurriak beterazleak dira, eta elikadurako eskubidea, ordea, ez.

2001ean, Dohako konferentzian, nekazaritzaren liberalizaziorako MMEren agintea luzatu zen, baina, ia 20 urte baino gehiago igarotakoan, oraindik ere bukatu gabe dago. Alde batetik, garabidean dauden herrialdeek gertatutakoa ebaluatu nahi izan dute, eta mesedegarri izango zaizkien eta euren ekonomia babesteko maniobratzeko aukeraren bat emango dieten neurri zuzentzaileak sartu nahi izan dituzte; horrela, elikagaien hornikuntza eta elikadura-segurtasuna bermatu nahi izan dituzte (2007-08ko elikagaien krisialdiak larri kaltetu baitzituen). Garapen-kutxa⁴ bat ezartzea proposatu dute nekazaritzari laguntzeko neurriak hartu ahal izateko, euren elikagaiak ekoiztea ahalbidetzeko eta euren ekonomien eta gizartearen garapena bultzatzeko. Baina oraindik ez dute lortu, zeren eta Iparraldeko herrialdeek eta Cairns⁵ Taldeko kideek merkatuak liberalizatzeko neurri berriak eta handiagoak hartzeko eskatzen dute, euren nekazaritza-elikagaien industriaren mesederako⁶.

2.3. Merkataritzari Loturiko Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioa

Baina globalizazio neoliberalak eta nazioz gaindiko enpresek (NGE) nekazaritza-sektoreari egindako erasoak MMEren Merkataritzari Loturiko Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioaren (MLJIBA) gauzapenean eta geroko kudeaketan nabaritu zen argien. 1995eko Akordio horren bidez areagotu egin zen jabetza intelektualeko eskubideen babesa, herrialde guztiak behartzen zituelako, 10 urteko epean, patenteen, marka erregistratuen eta egile-eskubideen babesa barne hartuko zituen jabetza intelektuala babesteko legea egitera.

Nekazaritzari dagokionez, akordio horrek bultzada nabarmena eman zion bioteknologiari eta Genetikoki Eraldatutako Organismoetan (GEO), hots, *transgenikoetan*, oinarritzen den nekazaritza-ekoizpenari. MLJIBArekin, eraldaketa genetiko horiek patentatu egin daitezke eta kimikaren eta bioteknologiaren sektoreko NGEei bidea ireki zien hazien eta landareen inguruko mundu-mailako ezagupenari merkataritzako erabilera pribatua emateko. Nahikoa da existitzen ziren haziei eraldaketa genetikoa egitea, asmakuntza gisa patentatu eta eskusibotasuna edukitzeko.

Horrela, mundu-mailan dauden hazi-bankuak merkataritzako irabaziak lortzeko harrapakin tentagarri bihurtu ziren. Belaunaldiz belaunaldi munduko nekazariak sortuz joan diren ezagupen-ondarea eta hazien hobekuntza irabaziaren logikaren mehatxupean jarri ziren. MLJIBAk zabalduko bideak arriskuan jarri zuen nekazaritzako bioaniztasuna eta haren etekinen banaketa berdinzalea.

2.4. Agroerregaien liberalizazioa eta sustapen-politikak

1990ko hamarkadan nazioarteko finantza-merkatuan gertatu zen liberalizazio sakonak kapitalen nazioarteko mugimenduen kontrola desagerraraztean eta inbertsiogile instituzionalen bidez tituluak saldu eta erostean oinarritzen zen finantza-bitartekaritzako modu berri bat ezartzea ekarri zuen. Horrela, geroztik egunero merkatu horietan kapital bolumen oso altua mugitzen da planeta osoan zehar, epe laburreko errentagarritasun handienaren bila.

2008ko nazioarteko finantza-krisialdiaren ondorioz, inbertsiogile instituzionalek merkatu berriak behar izan zituzten inbertsioak egiteko, eta horietako batzuek hautatu zuten inbertsioak egitea oinarritzko

4 Garapen Kutxa terminoarekin lotu da NAn merkataritza-harremanak kaltetzen duten arabera baimentzen edota debekatzen diren politikak adierazteko ezarri zen kutxa sistema. Garapen Kutxa sisteman txertatu beharreko beste neurri mota zehatza. Izan ere, jatorrizko NAn hiru kutxa mota bereiz daitezke: kutxa orlegian eta urdinean merkataritza kaltetzen ez duten babes-neurriak daude (ikerketa, naturaren zaintza,...), eta kutxa horian, nekazaritza-gaien prezioan eragiten duten politikak eta, ondorioz, merkataritza kaltetzen dutenak; kutxa horiek ez baitituzte kontuan hartzen garapen bideko herrialdeen beharrak modu berezian (gosea, azpielikadura...).

5 Cairnseko taldeko kideak honako herrialdeak dira: Argentina, Australia, Brasil, Kanada, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Filipinak, Guatemala, Indonesia, Malaysia, Zeelanda Berria, Pakistan, Paraguai, Peru, Hegoafrika, Thailandia, Uruguai, Vietnam.

6 Nekazaritza akordioaren xehetasun gehiago eta Dohako negoziazioek izan duten bilakaera eta bertan egin diren proposamenak sakonago aztertzeko, ikusi (Areskurrinaga, 2016).

produktuen nazioarteko merkatuetan, elikagaiak barne; horrela, bai unean uneko nekazaritza-salgaiak, bai etorkizunekoak, eragile instituzional horien epe laburreko errentagarritasuna lortzeko espekulazio-erabakien menpe geratu ziren.

Gainera, negutegi efektua eragiten duten gasen jaulkipenak sorturiko klima-aldaketaren ondorioen aurrean herrialde industrializatuek zuten kezka gero eta handiagoak, eta erregai fosil solidoetan oinarrituriko energia-ereduaren agortze hurbilak eragin zuten 2000tik aurrera Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) 34 kideek nekazaritzako erregai likidoak –bereziki, etanola eta biodiesela– garraiorako erabiltzea sustatzeko neurriak hartzea. Neurri horiek, gainera, ez ziren barneko ekoizpenera mugatu; Hegoaldeko zenbait herrialderekin izandako akordioez baliatuta (edo zuzenean ezarritik), salgai horien ekoizpena sustatu zuten bertan, ez barneko elikagaien merkatua hornitzeko asmoz, baizik eta Iparraldeko herrialdeetara esportatzeko, horretarako lurra metatzeko neurriak hartuta, gainera. Hortaz, industria-erabilerarako nekazaritzako elikagaien eskaera berri eta garrantzitsua sortu zen, elikadurarako erabiltzeko eskaerarekin lehian sartuz bete-betean.

2.5. Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenak: Transatlantic Trade and Investment Partnership (TTIP) eta Comprehensive Economic and Trade Agreement (CETA)

2010a geroztik, Europako eta Ipar Amerikako NGEk eta lobbyek bertako gobernuak presionatu zituzten, bide berriak hartzeko liberalizazio prozesua areagotu zedin haien intereseko gaitan (merkataritza eta lehia erraztea, nazioarteko inbertsioak babestea, zerbitzu publikoak liberalizatzea...). Horrela, MMEren mundu-mailako negoziatioak alboratu gabe indar handia egin zen erregio-mailako (kontinenteak barne) merkataritza- eta inbertsio-hitzarmenak adosten; horien helburu nagusia zen nazioarteko inbertsioetarako babes gehigarria lortzea eta tokian tokiko arau-eragozpenak desagerraraztea.

Horrela, ozeanoz gairako merkataritza-liberalizaziorako akordioaren negoziatioa jarri zen abian herrialde nagusien artean, bai Pazifikokoan (AEB eta Pazifikoko herrialde nagusiek adostu zuten *TransPacific Partnership*, TPP) bai Atlantikoan. Europa eta AEB negoziatzen hasi ziren Europaren eta AEBen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (TTIP); era berean, Europak Kanadarekin 2016an sinaturiko eta jada indarrean den Merkataritza eta Ekonomia Akordio Orokorra (CETA) jarri zen abian.

Trumpen garaipenak prozesua moteldu eta hoztu badu ere *Put America First* ildo babeslearekin, akordio horien edukia eta hedapenak bizi dugun krisi sistemikoari aurre egiteko NGE-en estrategiaren barruan kokatu behar dira. Hau da, haien boterea sendotzeko bere jarduerak estatuen arauen eraginetik kanpo utzi eta merkataritzako harreman kapitalisten esparrua zabalduz estatuen menpe zeuden arloetara; eta hori ezkutuan, jendea bizkar emanda (Fernandez, 2018).

TTIPren kasuan, badirudi oinarritako edukietako batzuk honako hauek zirela: Europako eta AEBetako zerbitzu eta ondasun publikoek dagozkien araudiak beherantz berdintzea; hala nola finantza-sektorea, hezkuntza, kultura eta aisialdia edo osasuna; nazioarteko inbertsio pribatuak herrialde hartzaileetako araudi-aldaketen aurrean babestea, herrialde horietako erakunde judizial publikoak kontuan hartu gabe, eta produktuen, bereziki, nekazaritzako mugako babes-maila jaistea.

2.6. Egitura Doikuntzarako Programak (EDP) eta kanpora begirako nekazaritza-eredua

80ko urteetatik aurrera pentsamendu liberala gailendu izanak eta kanpo zorraren arazoak eztanda egin izanak Hegoaldeko ekonomietan EDPak abian jartzea ekarri zuten. EDPek oinarritako bi zutabe zituzten: merkatu-harremanak eta ekimen pribatua, batetik, eta kanpoko sektorearen liberalizazioa, bestetik.

Testuinguru horretan erabakitako politikak berebiziko eragina izan zuten nekazaritza-sektorearen etorkizunean. Izan ere, oreka makroekonomikoa lortzeko egonkortasun-programek inflazioa murriztea


zuten helburu bakar; eta hura lortzeko bide nagusia gastu publikoa murriztea izan zen, tartean, nekazaritza-sektorean egindako gastu publikoa (prezioei eusteko gastuak, biltegiatze-gastuak, elikagaien banaketa eta merkaturatzea gauzatzeko gastuak...). Horrekin batera EDP horiek nekazaritza barruko nazioarteko merkatuetan irteera zuten nekazaritzako produktuen ekoizpenari begira jartzea zuten xede. Ikuspegi berrian, nekazaritza-sektoreak izaera nabarmen esportatzailea zuen, hau da, kanpo zorrari aurre egiteko beharrezko dibisak lortzeko xedea.

Horrela, nekazaritza-jarduera eraldatu zen: merkatu nazionalako biztanleen elikadura-beharrizanak nekazari tokiko komunitateen bidez asetzeko oinarritzko elikagaiak ekoiztetik (artoa, patata, arrosa, garia...), ustiategi estentsiboetan kanpo merkaturako labore bakarrak (kafea, kotoia, soja, kakaoa...) ekoiztera igaro zen; aldaketa horrek ahalbidetu zuen eredu industrialia hegoaldera ere zabaltzea. Izan ere, kanpora begirako sektoreak lur-kantitate handia, ongarriak eta mekanizazio-maila altua behar zituen. Eraldaketa horren islarik adierazgarriena da elikadurarako nekazaritza-produktuak (artoa, soja, azukrea...) erregai likidoak ekoizteko salgai gisa erabili izana modu progresiboan.

EDPek aldatu egin zuten herrialdeen elikadura-beharriza asetzea gidatzen zuen filosofiaren funtsa. Elikagaien ekoizpen propioa eta nekazari txikien bizimodua alboratu ziren; merkatua, batez ere, nazioartekoa, erdigunean jartzeko. Geroztik, beharrezko elikagaiak erosteko behar beste dibisa edukitzea da garrantzitsua, eta ez, horrenbeste, barneko produkzio ahalmena; horrek elikagaien inportazioekiko menpekotasuna eta NGE-en negozioak bultzatzea badakar ere.

2.7. Nazioarteko korporazioen pisu hazkorra

Elikagaien balio-katearen gain (begiratu grafikoa) NGE eta korporazio handiek eskuratutako boterea geroz eta handiagoa izan da; modernizazioaren eta globalizazioaren eragin konbinatuaren ondorio nagusia da. Balio Kate Global (BKG) horietan, nekazariak, alde batetik, lehengaien hornitzaile hutsak bilakatzen dira, industria eta banaketa handiaren barnean bertikalki integratuta, eta, bestetik, inputen (haziak, ongarriak, errekinak, pestizidak, etab.) menpeko bezeroak dira, input horiek hornitzeko enpresa agrokimikoen eskutan daudela.



Iturria: norberak egindakoa.

Kasu askotan, inputen eta ekoizpenaren erosketa-salmentapakete bereberean integratuta daude; nekazariaren ekarpena lurra eta bere lana dira, eta balio erantsiaren zatirik handiena balio-katearen beste begietan geratzen da. Horrela, produkzioa, eraldaketa, banaketa eta kontsumoa integratuta azaltzen dira; integrazioa herrialdeen mugen gainerik gauzatzen da. Finantza-kapitala hedatzeak enpresa-antolaketa modu hori indartu du, eta nekazaritza-elikadurako korporazioen eta banaketa handiko korporazioen kontzentrazioa eta hazkundea indartu da. Azken hamarkadetan, banaketa handiko enpresek BKGren kontrola beren esku hartu izan dute; ondorioz, elikadura-enpresek aurretik zeukaten gutxi gorabeherako indarra gailendu da.

1. Taula: Txikizkako banaketa-talde nagusiak, 2016

Sarrera rankinga	Izena	Jatorriko herrialdea	Sarrerak (milioi USD)	Merkataritza eragiketak	Eragiketa herrialdeen kopurua
1	Wal-Mart Stores, Inc	AEB	485,873	Supermerkatuak	29
2	Costco Wholesale Corporation	AEB	118,719	Deskontu dendak / Hipermerkatuak	10
	The Kroger Co.	AEB	115,337	Supermerkatuak	1
6	Schwarz Group (Ldl)	Alemania	99,256	Deskontu dendak / Supermerkatuak	27
10	Walgreen Boots Alliance	AEB	97,058	Botikak/Farmazia	10
2	Amazon	AEB	94,665	Online salmentak	14
8	The Home Depot	AEB	94,595	Etxeko osagarriak	4
9	ALDI group	Alemania	84,923	Deskontu dendak / Supermerkatuak	17
4	Carrefour S.A.	Frantzia	84,131	Supermerkatuak	34
7	CVS Health Corporation	Alemania	81,100	Botikak/Farmazia	3

Iturria: Deloitte, 2018.

Lehengaien balio-kateetan, komertzializazioa merkatu zentralizatueta egiten da; prezioak erabakitzen du non eta noiz egiten diren transakzioak. Bitartekari eta korporazio handiek kostu baxuan eta oso azkar eskura ditzakete salgaiak, eta askotariko hornikuntza-iturrietara dute sarbidea, komertzializazio-sistema estandarizatu eta malguei esker. Horrela, enpresa kopuru txiki batek ekoizpen, komertzializazio, eraldatze eta banaketa faseak kontrolatzen ditu. Gainera, NGE handiek eskala-ekonomiak lor ditzakete, besteak beste, garraio, biltegiatze eta finantzaketa jardueretan. Prozesu horrek mundu-mailako eskala globala hartu du azken hamarkadetan, eta BKGak dira jaun eta jabe egungo elikadura-sistema globalizatuan.

3. Nekazaritzaren garapen ereduak: Iraultza Berdetik Elikadura Burujabetzara eta elikadura-sistemaren ikuspegi feministara


Elikadura-sistema globalaren eraketarekin batera, nekazaritza-produkzioaren ereduak aldatzen ari zen, jardueraren modernizazioaren eskutik. Aldaketa horien adibide paradigmaticoa Iraultza Berdea izan zen, hau da, Hegoaldeko herrialdeen nekazaritzaren produktibitatea hazarazteko asmoz 1960ko hamarkadan martxan jarritako ekimena.

Hala ere, eta nahiz eta produkzioa handitu, berrikuntzaren indarrek arazoak sortu zituzten, alde batetik, lurraldearen sostenguaren ikuspegitik eta, bestetik, ingurumen-oreka eta pertsonen bizi-baldintzen duintasuna kolokan jarri zirelako. Horrek guztiak, aurreko atalean azaldutako tentsioekin batera, nekazaritzako eta elikadurako eredu alternatibo baten paradigma garatzea bultzatu dute: Elikadura Burujabetza.

3.1. Iraultza Berdea

1963tik aurrera, munduko goseari aurre egiteko asmoz, FAOk Nekazaritza Garapenerako Munduko Plan Indikatiboa jarri zuen martxan. Plan horrek Iraultza Berdea izena hartu zuen geroago. Bere oinarria errendimendu altuko hazien barietate berriak erabiltzea izan zen. Hazien barietate berri horiek Filipinetan, Mexikon eta Kolonbian kokatutako ikerketa zentroetan garatu ziren.


Barietate berri horiek erabiltzeak produkzio-ereduaren aldaketa zuen oinarri, etekinak maximizatzeko helburuarekin; intsumo kimikoak (ongarriak eta pestizidak) modu masiboan erabiltzea eta monolaborantza intentsiboa hedatzea ekarri zuen horrek. Prozesu hori Asian kontzentratu zen, bereziki, eta, horren ondorioz, zituen produkzioa bikoiztu egin zen ia, 1965-1985 epealdian, Asia Hegoaldean, 117 milioi tonatik 228 milioi tona arte. Hala ere, produkzioaren hazkunde horren % 77 Indiari dagokio.



Iturria: FAOSTAT [<http://www.fao.org/faostat/en/>].

Baina laboreen errendimenduak izandako hobekuntza ez zen modu berean zabaldu garapen bidean zeuden herrialdeen artean. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, Afrikako nekazariak lortutako errendimenduak oso hazkunde mugatua jaso zuen Iraultza Berdearen urteetan. Horren arrazoi batzuk ikerketak finkatutako lehentasunak izan ziren: Afrikako nekazarien labore nagusiak (sorgoa edo kassaba, adibidez) ikerketatik kanpo geratu ziren Iraultza Berdearen lehen urteetan; baliabideak, ordea, artoa, garia edo arropa genetikoki hobetzera bideratzen ziren. Bestalde, Afrikako lur-hornidurak nahiko handiak izan ziren urte horietan; beraz, modu intentsiboan aritzeko eskaria nahiko baxua zen. Joera hori aldatu egin da azken urteetan Afrikako zenbait eskualdetan, eta errendimendua handitzeko presioa areagotu da.

3. Grafikoa: Zituen errendimendua (Hg/Ha) 1965-1985



Iturria: FAOSTAT [<http://www.fao.org/faostat/en/>].

Hala ere, produkzioa hazteak ez zuen ondorio gisa ekarri elikagaiak eskuratzeko arazoak eta gose-arazoak murriztea. Populazio-talde handiek oraindik arazo handia dute beren eguneroko elikadura bermatzeko beharrezkoak dituzten elikagaiak eskuratzeko. Baina Iraultza Berdearen eredua garatzeak beste arazo batzuk ekarri zituen. Labore gutxi batzuk sustatu ziren, areagotu egin zen nekazarien menpekotasuna kanpoko intsumoekiko; kostuak handitu ziren; kreditu beharrak handitu ziren; kanpoko merkatuekiko menpekotasuna handitu zen; ongarrri eta pestizida sintetikoak eta errekin fosilak erabiltzeak ingurugiro-kalte handiak eragin zituen; nekazarien arteko ezberdintasunak areagotu ziren; genero ezberdintasunak handitu ziren, bioaniztasuna murriztu zen eta abar (León, 2018). Nekazari pobreenek galarazita zeukaten eredu hau eskuratzea, eta ezin zituzten, halaber, eredu horren bitartez ekoiztutako elikagaiak erosi.

3.2. Nekazaritza jasangarriko bide berriak: intentsifikazio jasangarria eta "Climate Smart Agriculture"

Nekazaritzan eta elikagaien ekoizpenean hazkunde handia izan arren, oraindik ere munduko populazioaren zati handi batek ezin ditu nutrizio-beharrak ase, eta gosea pairatzen du. FAOren esanetan, munduko ia 821 milioi biztanleek pairatzen dituzte desnutrizio- edo malnutrizio-arazoak. Egoera hori hainbat herrialdetan kronikoa dela esan genezake. Aurreikuspenen arabera, 2050erako elikagaien ekoizpena % 60-100 hasi beharko da, geroz eta neurri handiago batean hirian biziko den biztanleriaren eskaria eta animali jatorria duten elikagaien kontsumoa handitu egingo direlako (Hertel, 2011).

Nazioarteko elikadura-sistemak horretarako eskaintzen duen bidea da derrigorrezkotzat jotzen den ekoizpenaren hazkundera gauzatzea eta, horrela, eskari hazkorra asetzeko asmoz, merkatua eta teknologia indartzea. Hauek dira proposamenetako batzuk: balio-katea kudeatzea, informazioa modu eraginkorrean erabiltzea (adibidez, arrisku meteorologikoak murrizteko), prezisiozko nekazaritza, lurrik gabeko nekazaritza, bioteknologia (non zelula amengandik haragi kultiboak lortu izan diren jadanik), labore transgenikoak hedatzea, etab. Proposamen horiek, hala ere, elikadura-sistemaren barnean dauden desberdintasunak areagotzen dituzte, eta nekazari txikien zaugarritasuna eta desagerpena bultzatzen dute. Nekazaritza negozio hutsa da, eta, bertan, kapitala eta luraren kontzentrazioa⁷ indar motorrak dira.

7 Etorkizuneko elikagai-hornikuntza estrategiko hori bermatzeko, zenbait herrialdetako gobernuek lur-sailen erosketa masiboak ere hasi dituzte, eta *land grabbing* deritzen prozesuak martxan jarri dituzte. Horrela, Txinako eta Persiar Golkoko gobernu eta enpresek Afrikako zenbait herrialdetako nekazaritza-azalera handi bat kontrolatzen dute gaur egun.

Baina argi dago, era berean, ekoizpenaren hazkunde-beharra lurraren gaineko presioa areagotzen ari dela, ingurumen-presioak handitzen. Hori natur baliabideak agortzen eta ingurumen-kalteak zabaltzen ari da. Kalte horietako batzuek lotura dute eredu intentsiboak hedatzearekin (ur- eta zoru-kutsadura, pestiziden eraginez; nitratoen isurketa lurrazpiko ur-korrontetan; lur produktiboaren gatzatze prozesuak; bioaniztasunaren galerak, negutegi efektua sortzen duten gas-isurketak, etab.). Beste kalte batzuk, ordea, baliabide gutxiko nekazaritza-eredu zaugarriek baliabide naturalen gainean egindako presioen ondorioak dira: deforestazioa, zoruaren nutriente-galera eta erosioa. Horrela, urtero 12 milioi nekazaritza-hektarea galtzen dira (Snapp eta Pound, 2017).

Beraz, eskariak eta ingurumen-kalteek gora egin izanak nekazaritzako ekoizpen-eredu jasangarriagoen beharra areagotu du. Nazioarteko erakundeen eta komunitate zientifikoaren artean geroz eta ohikoagoak dira "intentsifikazio jasangarria" (*sustainable intensification*, SI) edo "klimatikoki egokia den nekazaritza" (*climate smart agriculture*, CSA) aipamenak. Eredu horien xedea da bai herrialde garatuetako input-maila handiko nekazaritzari bai garapen bidean dauden herrialdeetako nekazari txikiei aplikatzea.

Slren definizio bat honako hau da: azalera berebean ekoiztutako output-kantitatea handitzea, eta, aldi berean, ingurumen-inpaktu negatiboak murriztu eta natura kapitalari egindako ekarpenak eta ingurumen-zerbitzuen fluxua haztea (Pretty et al, 2011). Bestalde, CSAren xedea da nekazaritza klima-aldaketara egokitzea eta berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketa murriztea, produktibitatearen eta errenten hazkunde jasangarria bermatuta. Horrela, elikadura-segurtasunaren eta klima-aldaketaren helburuak aldi berean jorratuko lirateke. Neurri batean, kontzeptu horiek hedatu izana Nazio Batuek adostutako Garapen Jasangarriaren Helburuei erantzuteko daukaten potentzialaren ondorioz gertatu da. Horrela, politika, akordio instituzionalak eta finantza-kanalak lotuko lituzkeen ildo bateratzailea izango litzateke. Hala ere, ahultasunak ere nabarmenak dira.

Adibidez, garapen-eredu horiek eskaintzaren aldeko ikuspegi batean oinarritzen dira. Ez dute kontuan hartzen eskariaren aldeko ikuspegia, ezta elikadura-sistemaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk ere: elikagaiak eskuratzea, elikadura-segurtasunaren eskaletan egon daitezkeen ondorioak aztertuta; balio-katearen inguruan gerta daitezkeen kontrol- eta botere-mailak; merkatuaren rola; kontsumoa eta elikagaiak alferrik galtzea; ingurumen-segurtasunarekin batera nutrizio-segurtasuna lortzea; elikadura-eta nekazaritza-politikak diseinatu eta inplementatzea, etab.

Beraz, eredu berriek, nahiz eta modernizazioak sortutako kalteei aurre egin nahi izan, ez dituzte behar bezalako moduan jorratzen gaur egungo eredu nagusiaren dimentsio sozial eta politikoak. Elikaduraren eta nekazaritzaren jasangarritasuna ez da bakarrik ingurumenaren babesa eta baliabideen erabilpen eraginkorra bermatzea; jasangarritasunak tokiko ezagutzan eta justizian sustraitua egon beharko luke, elikagaiak behar dituzten pertsonak haiek eskuratzea bermatzeko, ez soilik NGE-en mozkinak.

3.3. Modernizazio eta nekazaritza hustuketa prozesuen aurreko erantzun politikoa: landa-garapena

Modernizazioaren eta nekazaritzaren pisu ekonomikoaren galerak ustiapenak desagertzea, nekazaritza-enpleguak murriztea eta landatik hirirako migrazioa areagotzea eduki ditu ondorio, besteak beste. Dinamika horiek landa-guneen beherakada eta marjinazioa ekarri dute, bai Iparraldean bai Hegoaldean. Horrelako prozesuei erantzuteko, gobernuek zenbait politika jarri dute martxan, landa-eremuen garapena bultzatzeko, eta hiriaren eta landaren arteko desorekak murrizteko, lurralde-garapen orekatuagoa lortzeko asmoz.

Hasiera batean, landa-garapenaren politikak nekazaritza-egitura hobetzeko politika gisa diseinatu ziren. Nekazaritzaren sustapenak eta herrialdeen auto-hornikuntzako elikadurak ez zuten soilik merkatuak eta prezioak babestea behar; nekazaritzaren produktibitatea igotzeko beharra zegoen, eta, horretarako, derrigorrezkoa zen nekazaritza-egiturak hobetzea: lur-sailak handitu, azpiegiturak hobetu, makinaria sartu, etab. Paradoxikoki, nekazaritzaren modernizazioak nekazaritza- eta landa-guneen marjinazioa

ekarri zuen. Ikuspegi hori ez zen soilik herrialde garatuetan gertatu. Hego Amerikako zenbait herrialdetan, landa-garapeneko politikak berrikuntza produktiboan oinarritu ziren EDPren eraginpean, bertako nekazaritza-sektorearen txertaketa eta lehiakortasuna nazioarteko merkatuetan hobetzeko asmoz (León, 2018).

Landa-eremuen beherakadari erantzuteko administrazio politikoek emandako lehen erantzunak Europako NPBn topa ditzakegu: 1970eko hamarkadan, ustiapenatarako dirulaguntza zuzenak eta azpiegitura-inbertsioak planteatu ziren, landa-garapeneko lehen politika bezala, mendi-eskualdeen eta beste eskualde ez faboratuen nekazaritza- eta herri-hustuketa progresiboari aurre egiteko.

1980ko hamarkadan landa-garapeneko politikak izandako aldaketek geroz eta gehiago azpimarratzen zuten beren lurralde-ezaugarria, eta ikuspegi sektorialak garrantzia galdu zuen. Landa-eskualdeak ekonomikoki eta sozialki berpiztea zen bere helburua, bertan bizi ziren biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Politiken aplikazio-eremua lurraldea izan zen, behetik gorako ikuspegiak bultzatu ziren, eta herritarren eta landetako eragileen partaidetza sustatu zen. Europako NPBren erreformek (1992, 1999 eta 2005) landa-garapeneko politikaren konplexutasuna eta esku-hartzea zabaldu zuten. Erreforma horien ondorioz, Europako landa-garapeneko politikak hiru ardatz nagusi izan dituzte:

- 1) Sektorearen lehiakortasuna: familia-ustiapenek eta landa-eskualdeetan kokatutako enpresa txikiek elikagaien kate-balioan daukaten posizioa hobetzea;
- 2) Landa-guneen ingurumena babestea, lehen sektoreak hornitzen dituen ingurumen-zerbitzuen hornikuntza sustatuz;
- 3) Landa-eskualdetako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea: zerbitzu eta azpiegiturretan hirietako biztanleekin dagoen lubakia murriztea, beste jarduera ekonomikoak sustatzea eta, horrela, enplegua eta bizitza aukerak hobetzea.

Garapen bidean dauden herrialdeetan nazioarteko erakundeek aplikatutako landa-garapeneko politikak egiturazko aspektuetan (azpiegiturak, lurren banaketa, modernizazio produktiboa, etab.) oinarritu izan dira, baina nekazarien eta landa-biztanleen erakunde kolektiboak sortzen ere saiatu dira, kooperatibak eta komunitate garapenerako proiektuak sustatuz. Ikuspegi horiek gobernuek eta GKE-ek ere konpartitu dituzte.

Nahiz eta landa-garapeneko politiken aplikazioak praktika egokiak eta proiektu arrakastatsuek gauzatzeko aukera eman⁸, landa-eremuen eta nekazaritzaren beherakada sozial eta ekonomikoa iraultzeko eduki duen gaitasuna mugatua izan da; beraz, nekazaritza- eta landa-eskualdeetan modernizazioak eta globalizazioak sortutako tentsioak eta gatazkak murrizteko ahalmen eskasa izan dute. Testuinguru horretan, 70eko hamarkadan sortutako agroekologiaren proposamena lekua hartzen joan da, eta nekazaritza tradizionalaren ezagutzaren oinarria da.

3.4. Nekazaritzaren eta elikaduraren proposamen eraldatzailea: Agroekologia

Agroekologia, zenbait dimentsioren bitartez, elikadura-sistemen iraunkortasuna ebaluatzeko eta sustatzeko ikuspegi zientifikoa da (Altieri, 1983; Guzmán et al. 2000). Halaber, hiru adierazpen gisa ere uler daiteke: zientzia gisa, nekazaritza-jokamolde gisa eta mugimendu sozial gisa. Agroekologiaren hiru alderdi horiek banaezinak dira zenbait egilerentzat (Rivera 2018); hau da, ezin da ulertu agroekologiaren zientziaren garapena, ehunka urtetan munduko baserritarrek landu dituzten nekazaritza-praktika ekologikoen jakinduria zaindu, metatu eta transmititu gabe; ezta munduko hainbat mugimendu sozialek intentsiboki landutako

8 Europar landa-garapenaren kasu arrakastatsuen zerrenda bat ikus daiteke hemen: [https://enrd.ec.europa.eu/projects-practice_es].

nekazaritari eta elikadurari loturiko borroka eta aldarrikapenik gabe ere; izan ere, elikaduraren eztabaida gai politiko bihurtu dute, eta mahai kolektibora eraman dute.

Horrez gain, azken urteetan, agroekologia mutur batetik bestera pasatu da: mundu zientifiko eta politikoan ikuspegi marjinal eta baztertua izatetik, eremu bietan arreta garrantzitsu eta hazkorra izatera. Horrek eztabaida sakona ekarri du agroekologiara, eta instituzionalizazioaren edota izaera eraldatzailearen balizko galeraren kezka azaleratu ditu (Rivera 2018).

Baina zer da agroekologia? Agroekologiaren kontzeptua 70eko hamarkadaren bukaeran sortu zen Latinoamerikan, unibertsitateko ikerlarien eta nekazari-indigenen komunitateen artean komunean egindako lanaren ondorioz. Hasiara batean agroekologiaren helburua zen *nekazaritza-sistemak eta ekoizpen-ereduak diseinatzea*, bertako ekosistema eta kulturetara egokituta, ezaugarri azpimarragarriena zela nekazaritza tradizionalaren ezagutzari ematen zitzaion garrantzia. Horrela, ikerlariak "jakintasan zientifikoaren eta tradizionalaren arteko elkarriketaz" hitz egiten zuten. Modu horretan, lege ekologiko unibertsalak kontuan hartuz, nekazaritzaren maneiuak tokian tokiko kultura, baldintza ekologiko eta eremu sozialetara egokitzen ziren. Horrekin, agroekologiaren bigarren dimentsio garrantzitsura iristen gara: *nekazarien komunitateak eta euren praktikak*. Agroekologiaren ikuspegitik, ezin da nekazaritza ulertu eremu hori kudeatzen duten komunitateen prozesu ekonomiko, sozial, kultural eta politikoak ezagutu gabe.

Beraz, agroekologiaren hiru alderdiak kontuan hartzen dira (zientifikoa, nekazaritza-praktikak eta mugimendu soziala) eta agroekologiaren garapenerako oinarritzko hiru dimentsioak jasotzen dira: dimentsio tekniko-produktiboa, sozial-kulturala eta politikoak. Dimentsio horiekin, agroekologiak lurraldeen eta herrien Elikadura Burujabetza du bere garapenaren jomugan, tokiko elikadura-kateak landuta.

3.5. Elikadura Burujabetza

Landa-garapenerako politikan ezintasunak agerian utzi izan du, urteek aurrera egin ahala, nekazaritza- eta landa-guneetako talde ez-faboratuen egoera hobetzeko nekazaritza-elikaduraren sistema errotik aldatzea beharrezkoa zela, paradigma berri baten barnean, elikagaien balio-katearen barneko botere-erlazioak aldatuz, eta nekazaritza eta elikaduraren politiken erreforma bat sakon eginez, tokiko mailatik nazioarteko mailara arte. Paradigma berri hori Elikadura Burujabetza (EBU) deituko da.

EBU kontzeptua aztertutako tentsio eta gatazka horiei aurre egiteko sortu zen 90eko hamarkadaren bukaeran, eta hurrengo urteetan garrantzia hartu zuen, elikaduraren eta nekazaritzarengan globalizazio neoliberalak edukitako ondorioaren erantzun eta erresistentzia paradigma bezala. EBUk elikaduraren eta nekazaritzaren gaineko eztabaidetara loturik dauden politikaren eta botere ekonomikoaren dimentsioak azalean jarri nahi ditu, nekazaritza- eta elikadura-sistema globalaren kritika erradikala eginez.

Nekazari, abeltzain eta elikagaien ekoizle txikien nazioarteko La Vía Campesina (LVC) koordinakundeak oinarritzko zeregina izan du EBUren indartze-prozesuan; izan ere, bere ekintza politikoen printzipiotzat hartu zuen. EBUren edukien defentsarako lehen agerraldi ofiziala 1996ko azaroan izan zen, Erroman izandako Elikaduraren Nazioarteko Gailurrean. Bertan, LVCK EBUren printzipio nagusiak finkatu zituen: elikadura-eskubidea herrialde guztiek bermatu beharreko oinarritzko giza eskubide gisa aldarrikatzen zuen, eta, aldi berean, euren lehen sektorea babesteko eskubidea aitortzen zuen. Eskubide hori eta nekazari guztiek elikagai "osasuntsuak, nutritiboak eta kulturalki egokiak" ekoizteko daukaten eskubidea bermatzeko, "zenbait aspektuk" garrantzi erabakigarria eskuratu behar zutela azpimarratzen zen; besteak beste: lurra (nekazaritza-erreforma baten bitartez, horrek ere emakumeek baldintza berberetan parte hartzea erraztu beharko lukeela), natura baliabideen babesa (ura, zorua eta haziak eskuratzea bermatu, ongari sintetikoaren eta pestiziden erabilpena murriztu eta material genetikoaren gaineko patenteen debekatu), elikagaien nazioarteko merkataritza berrantolatuz (*dumpingarekin* bukatu eta herrialdeek bere nekazaritza-politikak egiteko duten eskubidea onartu), eta gobernantza eta kontrol demokratikoa hobetu (nekazarien partaidetza-politikak sustatu, eta korporazio handiek elikagaien merkaturaren kontrola errazten duten nazioarteko erakundeen politikak berrikusi).

1996tik aurrera, kontzeptua eragile berrien ekarpenekin hornituz joan zen, eta nekazaritza- eta elikadura-sistema globala eraldatzeko agenda bat osatu zen nazioarte-mailako ekintza politikorako.

Artikulazio politikorako prozesu horrek 2007an izan zuen gailurra, Nyeleniko (Mali) Foroarekin. Bertan, eztabaidan eta agendan gai berriak sartzeko aukera eman zen: jada eztabaidak ez du fokua produkzioan soilik jarriko, kontsumoaren eta banaketaren inguruko aspektuak barneratuko ditu, elikagaien tokiko kulturarekin dauzkan loturak aitortzeko. Gainera, EBU herrien eskubide bihurtuko da, bere ezaugarri askatzailea hedatzeko asmotan. Hala ere, adiera eraldatzaileagoa emateko asmo horrek ziurgabetasuna eranstean zion burujabetasun horrek bere eskuetan zuen subjektuaren definizioari. Dena dela, horrezkero, herrietan zein hirietan nekazaritza- eta elikadura-sistema globalak sortutako desberdintasun eta injustizien aurka ari ziren gizarte-mugimendu askorentzat argudio uztargile bat zen EBU jadanik.

2007tik LVCK nazioarteko beste hiru konferentzia izan ditu (Maputon 2008an, Jakartan 2013an, eta Derion 2017an), barne eta kanpo artikulazio politikoa sendotzeko asmoz⁹. Bitartean, maila politikoko ekimenak nekazaritza- eta elikadura-politiketan eragiteko zuzendu izan dira, EBUren irizpideei jarraituz. Nazioarteko agertokian, ekimen horiek lortu dute FAOko Elikadura Segurtasun Batzordean munduko nekazaritza- eta elikadura-sistemaren inguruko eztabaidak irekitzea, eta eztabaida horietan gizarte zibileko erakundeen ahotsa entzutea¹⁰, eta baita nekazarien eskubideen inguruko zenbait aldarrikapen nazioarteko hitzarmenetan jasotzea ere¹¹.

Beste maila batean, EBUren hedapenak hainbat arrasto utzi ditu azken urteetan, zenbait herrialdetako konstituzioetan modu esplizituan onartu delako printzipio gisa. Herrialde horiek, besteak beste, Bolivia, Venezuela, Ekuador, Mali eta Senegal dira. Hala ere, aitorten konstituzionalak ez du gero beti eragin zuzena izan politika publikoetan. Adibide gisa, Ekuadorreko kasua daukagu: Ekuadorreko Montecristiko Konstituzioak (2008) EBU eskubidetzat aitortzen du 13. artikuluan, eta beste zenbait artikulutan irizpide horrekin lotuta dauden beste eskubide eta adierazpenak ere aitortzen dira (lurra, baliabideen banaketa, transgenikoen debekua, etab.). Hala ere, Correamen gobernuak EBUrengandik oso urrun zeuden lege eta ekimenak eraman zituen aurrera Konstituzioa onartu bezain laster. Horrela, 2008-2014ko Ekuadorreko Nekazaritza Ministerioako (MAGAP) aurrekontuaren % 10 bakarrik bideratzen da EBUrekin zuzenean erlazionatuta zeuden egitasmoetara (León, 2018).

Konklusio gisa, paradigma berri honek nekazaritzako elikadura-sistemaren demokratizazio baten alde egiten du modu argian, bai maila globalean bai estatu- eta eskualde-mailan. Baina, prozesu horretan, elikagaien balio-katearen barneko botere-erlazioen birplanteamenduan, emakumeen eskubideek kate horretan pairatzen duten zapalkuntza eta elikadura-sistemaren izaera patriarkala ezkutuan geratu ohi dira. Nahiz eta patriarkatua bazen landa-eremuetako herri eta auzoetan iraultza berdea iritsi aurretik, LVCKo emakume baseritarren talde propioak, eta baita agroekologiaren eta EBUren aldeko hainbat ikerlari eta mugimenduk ere, kapitalismoak eta patriarkatuak bat egiterakoan izaera askotariko zapalkuntza-sistema errotu nahi dutela salatu da. Horrek zenbait ondorio sortu ditu nekazaritzako ekoizpenetan eta emakumeen gorputzetan, eta beharrezko egiten du elikadura-sistemak eta EBUren paradigmak ikuspegi feminista izatea.

3.6. Elikadura-sistemaren ikuspegi feminista

Agroekologiaren dimentsioetan ikuspegi feminista dimentsio sozio-ekonomikoan txertatzen da oro har. Baina, ekonomiaren gaineko bestelako begirada bat txertatzeko, ugalketa jardueren eta zaintzakoan ikuspegiak modu zehatzagoan jasotzea ezinbestekoa da, proiektuak bide onetik joan daitezten.

9 Gaur egun, 182 erakunde dira LVCKren partaide, eta 81 herrialdetan daude.

10 Ikusi [<http://www.fao.org/americas/recursos/docs-soberania-alimentaria/es/>].

11 Esate baterako, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 73. Asanblada Orokorrean 2018ko azaroaren 19an onartu berri duen nekazarien eskubideen inguruko aldarrikapena (A/C.3/73/L.30) edota FAO mailan lurraren erabileraren eta jabetzaren inguruko borondatezko irizpideak.

Izan ere, diagnostiko osoa izateko, kontuan izan behar dira elikadura-sistema eta eredu agroindustrial patriarkalak dituen ondorioak, besteak beste: lana arlo produktibora murriztea, ugalketa-jarduerak ezkutatzuz edota deuseztatuz; lan eta espazio kolektiboak desagerraraztea; zaintzaren tokia eta garrantzia gero eta murriztagoa izatea; harremanak eta munduaren ikuskera lehiakortasunean oinarritzea; pertsona kontsumitzaileekiko harremanak urrundu eta merkantilizatzea; ondasunak pribatizatu eta merkantilizatzea. Beraz, elikadura-sisteman nola produzitzen eta erreproduzitzen den aztertzea nahitaezkoa da, horren arabera gainerako izaki bizidunak zaindu edo esplotatzen direlako.

Literaturan ez ditugu erreferentzia asko aurkitzen, perspektiba feminista agroekologiaren dimentsioetan eta proiektu agroekologietan txertatzeko moduari buruz. Izan ere, pentsamendu feministak ageriko egin ditu zientziaren eta ezagutzaren eraikuntzan dauden alborapenak (genero, arraza, klase eta abarren arabera dauden joerak)¹². Azterketa horietatik ondoriozta daiteke, gaur-gaurkoz, emakumeen parte-hartzeari, erabakitze botereari eta enplegu-baldintzei eta aintzat hartzen eta ikusarazten ez diren lanei dagozkien portaerak oso garrantzitsuak direla esperientzia guztietan, "eredu agroekologikoari loturik egon, zein ez hain loturik egon".

Azkeneko urteetan askotan aipatu da zeharkakotasuna, emakumeen errealitatearen gaineko begirada txertatzeko gako gisa, baina esperientziak erakutsi digu agroekologiaren dimentsio sozioekonomiko batean txertatutako genero-irizpideak edo adierazleak ez direla nahikoak, eta horiek osatu egin behar direla, zehazki jakiteko zer neurritan gertatzen den esperientzia agroekologikoetan ere sexuaren arabera lan-banaketa, banaketa hierarkizaturik ba ote den ala ez den, eta litekeen banaketa horretan nola gailentzen den arlo maskulinoa, alde material eta sinbolikoaren eraginez.

Beraz, elikadura-sistemako harreman bizigarrien ereduak harremanen aldaketa sakona eskatzen du, eta horrek ezinbestean produkzio sistema bera aldatzea eskatzen du. Zentzu horretan, proiektu konbentzionalek zein agroekologikoek, alderdi teknikoari ez ezik, harremanei ere begiratu behar diete, eta, horren ildoan, ezinbestekoa da lan guztietan erantzunkidetzat bultzatzea, eta zaintzak, ezagutzak eta balioen transmisioa desfeminizatzea.

Era berean, interesgarria izan daiteke jakitea eta balioestea zein neurritan doazen nekazaritza-ekimenak proiektuen bizitzaren erdigunean jartzeko norabidean, alderdi afektiboa, emozionala, gorputza zaintzeko espazioak sortuz... Garrantzitsua iruditzen zaigu zera jakitea: emakumeek elikaduraren eta zaintzaren inguruan dituzten ezagutzak eta ekarpen historikoak berreskuratzea ahalbidetzen ote den, emakumeak askatzen dituen eta dimentsio erreproduktiboa modu osasungarrian kolektibizatzen den eta abar.

Horregatik guztiagatik, Agroekologian eta EBUren proposamenean androzentrismoa gainditu eta *interdependentzia eta ekodependentzia* premisak jaso behar ditugu, dimentsio feminista modu esplizituan txertatzeko premia aztertu behar dugu, zeharkakotasunetik harago, proiektu agroekologikoen bizitza ikusiezina biluztu.

12 Herrero, Yayo (2014): "Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario", Carrasco, Cristina (ed.): *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*, La oveja negra, Madril. Perez, David eta Soler, Marta (2013): "Agroecología y ecofeminismo para descolonizar y despatriarcalizar la alimentación globalizada", *Revista Internacional de Pensamiento Político*, I. Epoca, 8. bol., 95-113 orrialdeak. Pérez Orozco, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños. Hemen eskuragarri: [http://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map40_subversion_feminista.pdf]; De Gonzalo Aranoa, Isabel eta Urretabizkaia Gil, Leticia (2012): *Emakume baserritarrak: analisis eta etorkizunerako aukerak elikadura-burujabetzatik abiatuta. Nekazaritza eta landa-garapenerako politika publikoak eta intzidentzia*. Hemen eskuragarri: [<https://www.ehu.es/documents/2007376/2899053/Las-mujeres-baserritarras.pdf>].

4. Tokiko elikadura-sistemen garapena: trantsizio agroekologikorako bidea aztertzen

Aurreko ataletan ikusi izan den bezala, eremu globalaren dinamikak eta nekazaritza-politiken erabakiek eragin itzela dute tokiko elikadura-sistemen joeretan, eta horien garapenean argi-itzalak sortzen dituzte.

Nazioarte mailako agendak hainbat gizon eta emakumeren eskubideen betebeharrak ahanzten ditu, elikadura-segurtasuna eta -burujabetza tartean, eta horrek maila lokalean lan egitea eskatzen du sakonki. Horretan guztian, Tokiko Elikadura Sistemaren (TES) garapen-ereduen eztabaidan eta estrategien erabakietan zein den herriko eta landa-guneko komunitateei ematen zaien lekua pentsatu beharra dago berriz, euren ahotsa entzuten eta jasotzen dela bermatzeko.

Agroekologia, EBUrekin batera, landa-garapenerako paradigma berrizat onartzen da, gaur egungo tokiko elikadura- eta ekoizpen-sistemaren funtzionamendu ekologiko eta iraunkorra lortzeko oinarri. Baina agroekologiaren garapen eta arreta hazkor hori gizartearen ezjakintasunaren testuinguru batean ere kokatzen da; izan ere; inoiz baino aldenduago gaude landa-eremutik, bai fisikoki bai psikologikoki, eta naturako eta elikadurako prozesuen sorkuntzan autonomia erabat galdu dugu. Errealitate horretan azken hamarkadetan gertatu diren elikadura-istilu kezkarriek erakutsi digute TESak bidea izan daitezkeela, elikadura-sistema iraunkor eta orekatuak sortzeko. Beraz, atal honetan, galdera nagusi bati erantzun nahi diogu: *nola garatzen ari dira TESak ikuspegi agroekologikotik?*

Tokiko elikadura-sistemak aztertzerakoan aipatuko ditugun adibide gehienak Euskal Herriko errealitatea kontuan izanik egingo ditugu, baita Espainiako eta beste lurralde batzuetako adibideak aintzat hartuta ere, eta euren errealitatera hurbilduko gara, ikasteko edo ekimen agroekologiko interesgarri edo erakargarriak ezagutzeko.

4.1. Tokiko elikadura-sistemaren kontzeptua xehetuz: Elikadura Sare Alternatiboak

EBUk ez du elikadura-sistemaren aldaketa mugaturik egin nahi: sistema bera gainditu nahi du, modernitate alternatiboaren eredu berri baten paradigma sortu, elikadura, natura eta komunitatearen artean harremanak berpiztu (Desmarais, 2007).

Paradigma berri horrek nekazaritzako elikadura-sistemaren demokratizazio baten alde jotzen du, bai maila globalean zein lokalean. Prozesu horretan, ESAen hedapenak elikadura-kate klasikoan (ekoizpena-banaketa-kontsumoa) harreman justuagoak sortzeko aukera ekarri dezake.

Zer dira ESAk? Nekazaritza- eta elikadura-sistema globalaren logika gainditzeko, ekoizleek eta kontsumitzaileek elikagaiak banatzeko asmoz (eta kasu askotan ekoizteko ere) osatzen dituzten sare antolatutako dira. Sare horietako kideak dira, alde batetik, bere produktuengatik prezio duinagoak jaso nahi dituzten edo merkatu logika nagusitik at dagoen produkzio-eredu bat aurrera eraman nahi duten ekoizleak; bestetik, bere kontsumo-jardueren ondorio etikoengatik kezkatuta dauden kontsumitzaileak. Kezka horiek elikagai-sistema globalak (eta konbentzionalak) eta nekazaritza-politikek pertsonengan, komunitateengan eta lurraldean duten eraginarekin dute lotura.

Horien arteko loturak elikagaien fluxu antolatuen bitartez eramaten dira aurrera. Kasu askotan, ekoizleen produkzio-sistemak agroekologikoak dira, eta tokiko merkatuen hornikuntzara daude zuzenduta. Sare horiek berdintasunezko genero-harremanak sustatzeko aukera bat ere ekarri dezakete. Halaber, kasu batzuetan, beste eragile publiko (tokiko administrazioak, udalak) zein pribatu batzuek (elkarteak, gizarte mugimenduak, enpresak ere) ere hartzen dute parte.

ESAen bitartez, ekoizleek eta kontsumitzaileek hamaika ekimen sortu dituzte azken urteetan, eta elikadura-sistema global eta konplexuaren zuloak nabarmendu eta sistema hori zalantzan jarri dute. Azken finean,

ESAek kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko harremanei marko berri bat eman diete, eta marko berri horrek nekazaritza familiarrari/eskala txikiko nekazariei elikadura-sistema globalaren presioa gainditzeko estrategia bat eskaini die.

Beraz, TEStan ESAek elikagaien birsozializazioa eta birbaserriartzea dute asmo (Renting et al, 2003). Hori ez da soilik tokiko den nekazaritza-sistemaren fluxu ekonomikoak sortzea; hortik harago, eta agroekologiaren iparrorratza kontuan izanik, elikaduraren birlokalizazioak sortzen dituen beste aukerak aintzat hartzea dakar, baita elikadura-kateko eragileen arteko harreman berriak sortu, eta iraunkortasun soziala, ekologikoa eta ekonomikoa lortzea ere, eta, horretarako, helburuak eta erantzukizun soziala partekatzen dira ekoizpen-kate osoko kideen artean; baita botere banaketa ere, elikaduraren balio-katean. ESAek sortzen dituzten aldaketetako batzuk dira komertzializazio espazioetan gertatzen direnak, merkaturatze-bide laburren (MBL) sistemaren birplanteamenduekin. ESAek izaera eraldatzailea dakarte nekazaritza- eta elikadura-eredu kapitalista, heteropatriarkal eta globalizatutik EBUren eradura, eta irizpide sozial, ekologiko, feminista eta gertukoak garatzen saiatzen dira.

4.2. Merkaturatze Bide Laburrak: aniztasuna eta panorama.

Marketineko literaturak horrela definitzen ditu MBLak: *merkaturatze bidea da, non erabiltzen den bitartekari kopuru maximoa* den (Kotler eta besteak, 2004). Definizio horren arabera, ondorengo alderdiak kontuan hartu beharko genituzke: batetik, MBL terminoa bitartekari kopuruari hertsiki lotuz gero, ez litzateke loturik egongo gertutasunari; bestetik, bertako merkatuak eta MBLak ez dira beti bat etortzen eskala txikiarekin, bereziki egungo banaketaren enpresa-dimentsioak kontuan hartuz. Horrela, bitartekari kopuruari begiratu soilik, bertan kokatuko genituzke sistemako banatzaile handiak edo banaketa-logistika optimizatzeko parte hartu dezaketen enpresa handiak. Zentzu horretan, MBLez aritzeak ez luke iraunkortasunaren dimentsioak bermatzeko aukerarik emango (Binimelis eta Descombes, 2010).

Horrela, ikuspegi agroekologikotik MBLez ari garenean, kontzeptuaren atzealdean dauden errealitateak kontuan hartzen ditugu, eta banaketa-sistemaren zenbait prozesu eta erabakiren ezaugarriak ere aztertzen ditugu. Beraz, ikuspegi agroekologikotik MBLez ari garenean, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko "gertutasunaz" ari gara, distantzia fisikotik harago, elikadura-kateko eragileen artean gertutasun horrek sortzen dituen harreman eta aliantzen izaeraz (Binimelis eta Descombes, 2010; Lopez 2015).

4.2.1. Merkaturatze Bide laburren formak eta datu batzuk

MBL batzuk nekazaritzako produktuak merkaturatzeko betiko erak dira: baserriko bertako salmenta; ekoizleen azokak; zuzeneko salmenta saltoki txikiei; edo jatetxeak zuzenean hornitzea ekoizpenetik bertatik, etab. Baina denborak aurrera egin ahala, galdu edo galbideratu egin dira nekazaritzako elikagaien globalizazioarekin. Hala ere, jendea hirietan pilatu denez, zirkuitu laburren modalitateak sortu dira, nahiz eta kontsumoa maiz ez den ekoizpen-ingurunean gauzatzen.

Hona hemen zenbait modalitate: *kontsumo soziala* (erakundeen, eskolen, ospitaleen eta abarren jantokiak); *saskien* edo *bazkideen sistema*, hots, janari-kutxak aldi behin etxeetara edo bilketa gune kolektiboetara banatzea; *kontsumo taldeak*, *elkarteak* eta *kooperatibak*, hau da, janari ekologikoak zuzenean ekoizleari erosten dizkieten jende multzoak; *kontsumitzaile* eta *ekoizle kooperatibak*, hots, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik elkarrekin egiturak edo azpiegiturak sortzen dituztenak; eta *komunitatearen sostengua duen nekazaritza*, hots, ekoizpenaren eta kontsumoaren artean konpromiso egonkorra ezartzen dituen eta ekoizpenaren arriskuak eta onurak eta, zenbaitetan, ekoizpen-baliabideen jabetza edo lana partekatzen dituen.

Modalitate desberdinek beren abantaila eta desabantailak eskainiko dizkigute, eta eskarira egokitzeko aukera desberdinak sortu. Helburua bada tokiko elikagai agroekologikoekin ahalik eta herritar gehiagorengana, modu duin eta bidezkoan, modalitate ezberdinak erabiltzeak kontsumo-modu desberdinetara banaketa-sareak egokitzea ahalbidetuko digu, eta baita baserrietara eta ekoizle-proiektu desberdinen izaeretara egokitzea ere. Horrela, ondorengo koadroan jasotzen dira:

1. Koadroa: Merkaturatze-bide laburrak		
	Bide laburrak	Zuzeneko salmenta
Kolektiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Kooperatibak eta elkarteak - Kontsumo soziala - Hornikuntza Unitateak 	<ul style="list-style-type: none"> - Nekazarien denda kolektiboak - Azoka bereziak (urteko edo udarakoak) - Kontsumo taldeak - Saskiak eta azokako postu kolektiboak
Indibiduala	<ul style="list-style-type: none"> - Denda tradizionala - Supermerkatu txikiak - Biodendak - Beste baserritarrak - HORECA - Banatzaileak (Internetan bitartekariekin barne) - Vendinga 	<ul style="list-style-type: none"> - Baserrian (Ekoturismoa) - Herri-azoka tradizionalak - Internetan/Tel. bitartekaririk gabe (Etxeko banaketa barne) - Harpidetza sistemak – saskiak

Iturria: norberak egindakoa

MBLen garrantzia ez da berbera herrialdeetik herrialdera. EBren iparraldean janari ekologikoen merkaturatzea, argi eta garbi, saltoki handien mende dago. Mediterraneoan herrialdeetan, berriz, MBLak merkaturatzea inportantea dira, eta ekologikoen salmenta osoaren % 40tik gora ere izan daitezke; esate baterako, Espainiako Estatuan. AEBei dagokienez, munduan den herrialde kontsumitzaile nagusia izanik ere, MBLak janari ekologikoen salmentaren % 7 baino ez dira, baina nahiko errotuta daude, eta, adibidez, 2013an, 8.000 nekazari-azoka baino gehiago izan ziren.

MBLen alde egiten duten produkzio-ekimen gehienek bide bat baino gehiago konbinatzen dute beren merkaturatze-estrategietan, egonkortasuna ziurtatzeko eta bakoitzaren abantailak aprobetxatzeko. Ekoizpenaren bolumena handitzen doan heinean, oro har merkaturatze-kanal luzeekin edo konbentzionalekin konbinatzen da MBL (esportazioa barne); izan ere, sare alternatiboak, gaur egun, ez dira gauza ekoizpen handiak xurgatzeko. Espainiar Estatuan, bolumen handiena mugitzen duen zirkuitu laburra kontsumo-talde, -elkarte eta -kooperatibena da (CSA¹³ edo komunitatearen sostengua duen nekazaritzaren ereduak eta ekoizpen- eta kontsumo-kooperatibak horren barnean kontuan hartuta). EAEn, ekoizpen ekologikoa merkaturatzeko erabiltzen diren kanalen datuak ez dira zehatzak edo ez dago datu askorik; Gipuzkoan dauden azterketak kontsultaturik, ondorioztatu daiteke familiako ekoizpen ekologikoen % 45ek azokak erabiltzen dituztela; % 50ek, berriz, tokiko saltoki tradizionala erabiltzen dute; % 70ek saskiak egiten dituzte –hala kontsumo taldeentzat nola kontsumitzaile sareentzat–; eta % 5-25ek baserrian bertan saltzen dute. Zentzu horretan, estrategia multikanalaren aukerari jarraitzen zaio.

4.2.2. Merkaturatze-bide laburren potentzialtasunak eta erronkak¹⁴

Ikuspegi agroekologikotik, zuzeneko salmentak eta MBLen erabilpena indartzea gomendatzen dute hainbat ikerketak (López, 2015; Sevilla eta besteak, 2012; Soler eta Pérez, 2013). Hurrengo koadroan laburbiltzen dira.

13 CSAren edo Komunitatearen sostengua duen nekazaritza-taldearen kontzeptuan eta erreferentzietan sakontzeko, ikus:

[<https://urgenci.net/wp-content/uploads/2016/05/Overview-of-Community-Supported-Agriculture-in-Europe.pdf>].

14 Horietan eta euren abantaila eta desabantaila zehaztetan sakontzeko, ikus: Begiristain eta Lopez, 2016; Lopez, 2015.

2. Koadroa: MBLen abantaila nagusiak
Nekazaritza-proiektuen egonkortasuna
Prezio adostuak/Bidezko prezioak/Prezio herrikoiak
Kooperazio-harremanak
Balorazio soziala
Biodibertsitatea balioestea
Elikagaien eskuragarritasuna
Ekonomia errearen bisualizazioa
Elikadura osasuntsuagoa (garaian garaikoa)
Energia-erabilpena murriztea
Erabaki ahalmenak berreskuratzea

Iturria: norberak egindakoa

Halaber, MBLen garapenak erronka nagusi batzuekin egiten du topo. Horien identifikazioa eta eztabaida izan genuen jomugan 2013an Lizarrako MBLen Esperientzien Nazioarteko II. Mintegian¹⁵. Lizarran lehenetsi ziren muga nagusiak eta atal honetan landutakoak kontuan hartuz, MBLen hurrengo erronken zerrenda azpimarratzen dugu.

3. Koadroa: MBLak garatzeko erronka nagusiak
Ekimen, egitasmo eta eredu antikapitalistak
Perspektiba feminista
Nekazaritza-kulturaren ezagutza
Ekoizleen arteko antolaketa eta koordinazioa
Agroekologian trebakuntza espezifikoak duten ikasketak eta teknikoak
MBLen difusioa
Kontsumitzaileen konpromisoa
Talde desberdinen arteko koordinazioa
MBLen eremuan dibertsitatea
EBUren inguruko pedagogia
Kultura eraldatzailea
Administrazioen borondate politikoa

Iturria: norberak egindakoa

Zailtasun horiek gainditzeko, zenbait komertzializazio-esperientzia garatu dira mundu osoan zehar, batzuk ekoizpen eta kontsumoaren artean osatuak, eta gero eta gehiago ekoizpenetik espresuki garatu direnak. Horien adibide dira hainbat eta hainbat ekimen elikadura-kateko begi-kate ezberdinetan eta ezberdinen artean sortu eta garatzeko eginko ahaleginak, baserritar bakoitzaren norbanako proiektutik hasi, eta beste

15 Mintegiko ondorioen txosten osoaren dokumentua topa daiteke hemen: [<http://www.ecologistasenaccion.org/article26545.html>].

hainbat proiektu kolektiboraino. Horrela, eta Euskal Herriko erreferentziak aipatzeko, badira eskualdeko espazio komunari erreferentzia egiten dioten proiektuak, *Tolosako azoka edo Elikagunea (Azpeitia)*, adibidez, eta baita *agroekologia*-trantsizio planteamenduak dakartenak ere, tokian tokiko elikadura-sareak udal gobernuetan bermatuta, hala nola *Ekoizpen Orduña* edo *Baztango Zaporeak* proiektuak. Badira ere baserriarren ofizioa eta ekoizpen iraunkorraren balioa nagusitzat dutenak, *Behieko* edo *Idoki* antzeko sor markak. Halaber, azkenaldian indarra hartu dute agroekologiaren alderdi soziala gune duten eta ekonomia sozial eta solidarioarekin lotuta dauden proiektuek, adibidez, *Karabeleko etxalde experimental* edota *Lakari kooperatiba* ekimenek; azken hori ekonomia sozial eta eraldatzailearen *Olatukoop* sareko kidea da. Badira ere nekazaritzan konfiantzazko sareak landu eta zaintzeko helburu duten Euskal Herri mailako ekimenak *EHKolektiboa* nekazaritza-mugimendua bezala edota ikuspegi feminista oinarri duen *Etxaldeko emakumeak*. Klasiko bihurtu dira elikagaien kontsumo agroekologikoa eta kontzientea modu kolektiboan eraiki diren esperientziak: *Nekasarea* (Bizkaia), *Basherri Taldeak* (Gipuzkoa), *AMAP* (Iparraldean), *Bioalai* (Gasteiz), *Landare* (Iruñea), *Otarra eta Oreka* (Astigarraga eta Azkoitia), edota berriki sortutako *Labore* (Oiarzun) eta *Labore* (Bilbo) edota *Ereindajan* (Arrasate eta Bergara). Era berean, kanal soziala elikatzekeo alternatiba kolektiboak lantzen dituzten proiektu aitzindariak *Gure Platera Gure Aukera*, herrietan eskolajantokien ekimenak bultzatzeko euskarri dena.

Ez dugu ahaztu behar kontrako baldintzak ere badirela (legedia, haziak erabili eta transmititzeko kontrola, baldintza higieniko-sanitarioak, azpiegituren mugak, borondate politikoa, interes ekonomikoak...) eta ekimen horietako asko borrokan ari direla irizpide sozialetatik eta ingurumenetik urrutiratzen diren interesen presioarekin. Mundu osoan eta hemen, ugari dira hori erakusten duten kasuak: *Arantzadi Bizirik*, *Errekaleor*, *Tosu Betirako...*, eta egoera horietan alternatibak eraikitzen dituzten proiektuak, *Zaldibiako Goizane* eraldaketa gunea, *Euskal Herriko Hazien Sarea*, *Haziera* hazien artxiboa edota Iparraldeko *Lurzaindia*, sektoreko eraketa kolektiboaren adibide garrantzitsuak.

Ondorioz, ESAetan MBLen abantailez baliatzea eta MBLak garatzea nahi bada, identifikatutako erronken lehenetsunean erantzun beharra dago, hots: agroekologian eta EBUen trebakuntza eta pedagogia egitea, elikadura-kateko eragileen arteko antolaketa garatzea, perspektiba feminista lantzea eta ekonomia post-kapitalistaren ereduak artikulatzea.

5. Ondorioak: Trantsizio agroekologikoetarako gakoak

5.1. EBUren bidea

80ko hamarkadatik aurrera, liberalizazioaren aldeko neurriek modu zuzenean eragin dute kalterako Hegoaldeko nekazari txikien bizimoduetan; bertako elikagaiak ekoizteko aukerak eta gaitasunak mugatu dira, eta, ondorioz, haien elikadura-menpekotasuna areagotu, eta mundu-mailan pobrezia, gosea eta elikadura-ziurgabetasuna hedatu dira. Izan ere, 90eko hamarkadatik hona, Hegoaldeko populazioaren elikadura-beharrak gero eta gehiago asetzen dira nazioarteko merkatuetatik etorritako elikagaien bitartez. Elikadura-arazo horiei aurre egiteko eta munduko nekazari txikien bizimodua duina izateko, beharrezkoak dira egun indarrean diren neurri merkatuzaleak zuzentzea eta nekazariei eta elikagaiei bueltatzea duten funtzio soziala, gizakion elikadura-beharrak asetzeko prozesuan, hau da, nekazariei, behar horiek asetzeko elikagaien ekoizleak izatea eta, elikagaiei, salgaiaren izaera soila utzi eta elikadurarako eskubidea gauzatzeko produktu izatea.

Bide horretan, ezinbestekoa da NAREN arabera derrigorrez bete beharreko neurriak bertan behera uztea eta herrialdeek EBUrako duten eskubidea onartzea. Hau da, herrialde guztiek, hegoaldekoek barne, ahalmena izan dezaten erabaki guztiak hartzeko, bertako elikadura-beharrak asetzeko bermatzeko asmoz, kanpoko lehia desleiala eta arau inposatzaileak baztertuz. Herrialdeetako botere publikoek ahalmena izan behar dute elikagaien barne merkatua babesteko eta produkzio, biltegitratze eta banaketaren inguruko neurriak hartzeko, bertako nekazaritza-jarduera sustatuta populazio osoaren elikadura-beharrak asetzeko.

Baina EBU prozesuaren nondik norakoak ez daude erabat zehaztuta oraindik. Ikusi dugunez, prozesua osatze bidean dago: egunez egun, elkarlanaren bidez eraikitzen ari da, tokiko mailatik nazioarte-mailara.

Horrek literatura zientifiko oparoa sortu du gaiaren inguruan¹⁶. Egindako ekarpenek sakondu dute nekazaritza-elikadura, sistemaren alternatiba justuago eta ekologikoago baten garapenean eta eztabaidan.

Lehenen, EBUren subjektuen eta beraien gobernantzaren inguruko hausnarketa izango litzateke. Nahiz eta nekazariak izan proposamenaren subjektu nagusiak, badira beste eragile aipagarri batzuk ere, hiritarrak edo administrazio publikoak. Lehenago aipatu den bezala, hirietako biztanleen eta nekazarien arteko harreman berri horiek ESAen bitartez gauzatzen ari dira. Hiritarren partaidetza ez da soilik banakako kontsumitzaile gisa gertatzen; beste erakunde edo eragile batzuen bitartez ere egituratzen da: eskola-jangelak, ostalaritza eta denda txikiak, tokiko elikagai-industria txikia, etab. Horrela, hiriaren eta inguruko landa-guneen arteko fluxu eta erlazioak berreraikitzen dira, eta udalek eta tokiko beste administrazioek elikadura-politika propioak sortzeko aukera ematen da: eredu parte-hartzaile bati jarraitzen zaio, eta tokiko mailako balio-kateak bidezkoagoak bilakatzen dira. Gobernantzaren ikuspegitik, kudeaketa demokratikoagoa aurrera eramateko aukerak ugaritzen dira.

Nazioarte mailan, FAO eta Nazio Batuen erakundeak ari dira poliki-poliki EBUren diskurtsoa integratzen. Baina integrazio horrek kontzeptuaren kooptazioa eragin dezake, eta, horrekin batera, potentzialtasun eraldatzailea ahuldu. Bestalde, LVCK Elikadura Jabetasuna "herrien eskubidea" dela dio, eta nabarmentzen ditu estatu-nazio tradizionalak dituen mugak, kontzeptuaren azpian dauden aspirazioak gauzatzeko. EB bezalako nazioz gaindiko testuinguruaren kasuan ere, EBUren markoaren definizioaren konplexutasuna ageri zaigu: zein izango litzateke burujabe, eskualdea, estatua edo batasuna bera? Bio-eskualdeak definitu beharko genituzke? Konpartitutako burujabetasun asimetrikoak (esparruen arabera) definitu genituzke? Zein izango litzateke erabaki-eremu egokiena? Galdera horiek guztiek ez dute erantzun errazik. Baina egungo egituraketa instituzionalean estatuak badute bai egiteko esanguratsua nazioarte mailako erakunde, gailur, hitzarmen eta arautzean: herrialdeen elikadura-beharrak asetzeari lehentasuna ematea, tokiko nekazarien produkzioa sustatuta, eta elikadura-kate globalen indar menperatzailea ahultzea, eredu agroekologikoen alde eginez. Horretan, tokiko esperientziak EBUren irizpideekin lerrotatutako politika publikoen errealitate-laborategi emankorrak izan daitezke.

Bigarren puntua EBUren ekoizpen-ereduari lotuta egongo litzateke. EBUren paradigmak elikagaiak nork eta nola ekoiztuko dituen inguruko galderak ebatzita daudela esan genezake: nekazariak ekoizten dituzten elikagaiak, agroekologiaren irizpideei jarraituz. Hala ere, beste galdera batzuek hausnarketa eta erronka ekartzen dituzte etorkizunari begira. Zein elikagai ekoiztu, adibidez. ESAetan, erabaki horiek ekoizleen eta sare horietako beste partaideen (kontsumitzaileak, tokiko administrazioak edo beste gizarte eragile batzuk) arteko elkarrizketaren ondorioz hartzen dira. Sare horiek antolatzeak erronka berriak sortzen ditu gobernantzaren dimentsiotik, eta elikadura-sistemaren demokratizazioa lortzeko beharrezkoak diren elementuen identifikazioaren beharra agerian uzten du.

EBU eta nazioarteko merkataritza nola uztartu ere bada galdera oraindik. Eztabaida itxita ez badago ere, gai horretan joera nagusia izan da orain arte nekazaritza liberalizazio-neurrietatik kanpo ateratzea eta barneko nekazarien produkzioa lehenestea. Nazioarteko merkataritzaren ekarpena barne produkzioaren osagarri gisa ulertzen da –eta ez egun gertatzen den bezala haren ordezko–, eta herrialdeen arteko trukeak arau bidezkoetan oinarritu behar direla. Ardatz nagusi horren barruan integratu behar dira egun esportazioetarako lanetan aritzen diren eta horretan jarraitu nahi duten nekazari txikien eskariak (haien zeregina eta negoziazio-ahalmena hobetzea indarrean dagoen balio-katean).

Bidezko merkataritzako tresnek bideak jorratu dituzte, baina oraindik ibilbide luzea dago egiteko. Bestalde, BKG horietatik tokiko kate laburragoetara jauzi egitea erabakitzen duten nekazarien sarrera-maila nahikoa bermatu beharko litzateke, beraien elikadura-segurtasuna murriztu ez dadin.

Guztiarekin, EBUren ikuspegia zabaldu behar dugu, ekoizpena eta kontsumoa ez ezik, etxeen barruan zer geratzen den ere begiratzeko eta botere patriarkalaren egiturak eta elikadura-ohiturak birpentsatzeko, erakundeetan, proiektuetan. Izan ere, ESAren garapenak elikadura-sistema globalak bizi duen testuinguru kapitalistaren, kolonialistaren eta heteropatriarkalen eragina ere badu.

16 Literatura hori guztia, batez ere, orientazio kritikoa daukaten bi aldizkari hauetan kontzentratzen da: [[The Journal of Peasant Studies](#)] eta [[Agriculture and Human Values](#)].

5.2. Tokiko elikadura-sistemak eraikitzen

Bide horretan, ikusten ari gara azken urteotan tokiko produktuen eta produktu agroekologikoen inguruko interesa asko hazten ari dela. Azkeneko urteetan esperientzia alternatiboak asko ugaritu dira, bai kopuruan bai ereduetan, eta horrek erakusten du masa kritikoa badagoela (eta, jakina, oligopolioa osatzen duten banatzaileei interesatzen zaie); baina hainbat arazo konpondu beharra dagoela ikusi dugu: sakabanaketa, antolakuntza falta, elkar ezagutzarik eza, elikadura-premiei erantzuteko eraginkortasunik eza, bolumen txikiak, bizitzarekiko jasangarritasunik eza, prekariedade ekonomikoa, hiri-eremua eta landa-eremua lotzeko gaitasunik eza, etab.

Ezinbestean hobetu behar diren jokaleku antagoniko horiek esperientzia alternatiboen eskala eta egiturari buruzko eztabaida mahaigaineratu dute (Rosset eta Altieri, 2018). Eztabaida horretan, ez dago erantzun erabatekorik. Baina baditugu gogoratu beharreko ikaskuntza batzuk.

Zentzu horretan, komenigarria litzateke gai honi buruzko eztabaidan galdera batzuk egitea: *Zer da handia? Zer da txikia? Hazi egin behar dugu, edo biderkatu eta saretu? Norekin ehundu nahi ditugu hariak, aniztasunarekin bat eginez? Nor da, elikadura-sistema honetan, subjektu hegemonikoa? Eredu baztertzailak berreraikitzen ari al gara? Zenbateraino dira feministak proposamen alternatiboak? Nola bermatu munduko metropoli handietako biztanleriaren elikagaien hornikuntza?*

Testuinguru horretan, proiektu agroekologikoen ikuspegi eta garapenarekin batera, tresnak eduki behar ditugu eskura auto-diagnostikoa eta balorazioa egiteko, trantsizio bideetan proiektuak berrikusteko eta tokiko sare iraunkorrak eraikitzeko. Prozesuei buruz ari bagara, hura egiten, gauden unean kokatzen, zer lortu nahi dugun eta aurrera egiteko zer urrats egin behar ditugun erabakitzen lagunduko diguten *formulak* diseinatu behar ditugu. Nekez gauzatuko dugu prozesua bakarka; beraz, formula horiek *kolektiboak* izango dira eta, gainera, *azterketarako tresnak, topalekuak eta elkarri laguntzeko espazioak izango dira*.

Formula horiei atxiki behar diegun ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa izango da, dinamika izaerakoa; ez da izango emaitzak aztertzeko, prozesuak baizik, eta partekaturiko printzipio eta kontzeptu batzuei esker, proposamen inklusiboak eraikitzen lagunduko digute, malgutasunetik eta soluzioak elkarrekin eraikitzeko sormenetik, egoera eta eskaera guztiei errespetuan eta dibertsitatean oinarrituta erantzuteko¹⁷.

Norberak erabaki behar du beraren esperientziari zein datorkion hobeto, eta tokiko errealitatera eta bere helburuetara egokitu beharko du. Dena dela, beharrezkoa da agroekologiaren dimentsio ekonomiko, ekologiko, soziokultural eta feminista proiektu jakinetan hartzen diren erabakietan nola bateratzen ditugun hausnartzea eta haiek aztertu eta ebaluatzea. Ikuspegi agroekologikoaren logikak eskatzen du azterketarako eta ebaluaziorako prozesuetan proiektua edo prozesua kokatzen den tokiko elikadura-sistemako eragileek parte hartzea. Hau da, funtsezkoa bihurtzen da *nola* egiten den bide hori, ulertuta prozesuen ikuspegi eta metodologiek erabat baldintzatuko dutela sortzen diren sistemen iraunkortasun duin eta demokratikoa lortzea. Bide horretan, ekofeminismoaren eta ekonomia feministaren irakurketekin bat eginez, egungo elikadura-sistemaren oinarria natura eta emakumeen gorputzak direla salatuz, ezinbestekoa da bata zein bestea askatzea, sistemaren erdigunetik dirua kendu eta bertan bizitza jartzea.

Horrez gain, proiektu agroekologikoen bideragarritasun ekonomikoaren falta izaten ari da gako nagusia proiektuen iraunkortasun eta duintasun ezan. Zentzu horretan, proiektuek zenbait muga topatzen dituzte (eskala txikia, inbertsio gaitasun urria, gorabeheretarako malgutasun txikia, logistika zailtasunak, komunikazio-gaitasun mugatua...) eta ez dute alderdi hori hainbeste lantzen. Gainera, euren helburuak eta interesak ekonomia kapitalistaren interesetatik urrun ikusten dituzte, eta kapitala metatzetik harago beste alderdi batzuk dituzte jomugan: lurra zaintzea, prozesu kolektiboak, haziak berreskuratzea eta abar. Bide horretan, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen (ESE) ikuspegiak proiektu horientzat agertoki hurbilagoa eraikitzen lagun dezake: landuta dituzten tresna ekonomikoak eskaini, arlo horietan egon daitezkeen hutsuneak bete, eta proiektuen akonpainamendua eta trebakuntza garatu.

17 Ildo horretan, hainbat formula daude: finka bat aztertzea ahalbidetzen duten metodologiak (Lorearen metodologia), tokiko dinamizazio agroekologikoa, jardunbideak aztertzen dituzten adierazle agroekologikoen sistemak, nahiz sareak hainbat ikuspegitatik balioets ditzakeen parte-hartzea bermatzeko sistemak.

Beraz, trantsizio-prozesuek marraztuko dituzten ibilbideak nekazaritza-sektorearen eta landa-eremuaren berpizte iraunkorra, elikadurako kontsumo-ohituren aldaketa, elikaduraren balio-katearen birpentsatzea, tokiko elikadura-sistemak eraikitzea eta ikerketa, trebakuntza eta diskurtso berrien sorkuntza eskatzen digute, gizarteak izan dezan bere esku elikadura-eskubidearen gobernantzarako aukera.

Lurralde bakoitzeko pertsonak mendeetan zehar elikagaien ekoizpenari eta prozesuei buruz bildutako jakinduria zaindu eta ikusaraziko duten politika publikoak garatuz, beste balio eta begirada zabalagoa duten ekimenak martxan jartzea beharrezkoa izango da, gizadiaren eskubideak lehenetsi, eta pertsonen burujabetza eta osasunean justizia soziala lotzeko.

Bibliografia

- ALTIERI, Miguel (1993): *Agroecología: bases científicas de la agricultura sostenible*. CEPAL. Valparaiso, Txile.
- ARESKURRINAGA, Efren (2008): "La liberalización agrícola y el aumento de la inseguridad alimentaria mundial". *Bakeaz koadernoak*, 86. zk. *Ekonomia eta Ekologia Bilduma*. Bilbo.
- ARESKURRINAGA, Efren (2016): "La liberalización del comercio agrícola y textil en la OMC: efectos en los países del Sur" *Revista de Economía Crítica* 22. zk., bigarren seihilekoa.
- BEGIRISTAIN, Mirene eta LÓPEZ, Daniel (2016): *Bideragarritasun ekonomikoa eta Bideragarritasun soziala. Familiako ekoizpen ekologikoa merkaturatzeko proposamen agroekologiko bat*. ENEEK arg. Eskuragarri: [https://www.eneek.eus/files/2017/03/20161102_viabilidad%20DEFINITIVO%20web.pdf]
- BEGIRISTAIN, Mirene (2018): "Comercialización agroecológica: un sistema de indicadores para transitar hacia la soberanía alimentaria", *Cuadernos de Trabajo – Lan Koadernoak Hegoa*, nº 75, Hegoa, Bilbo. [http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/367/Lan_koadernoak_75.pdf?1524730486]
- BINIMELIS, Rosa eta DESCOMBES, C. (2010): *Comercialització en circuits curts. Identificació i tipologia*, Escola agraria de Manresa i Verloc eta L'Era elkarteak argitaratua, Verloc (Bartzelona).
- CEVC (2018): "Soberanía alimentaria, Ya! Una guía por la soberanía alimentaria" eskuragarri hemen: [<https://viacampesina.org/en/wp-content/uploads/sites/2/2018/02/Food-Sovereignty-a-guide-ES-version-low-res.pdf>]
- DELOITTE (2018): *Global Powers of Retailing 2018. Transformative change, reinvigorated commerce*. URL: [<https://www2.deloitte.com/content/dam/Deloitte/global/Documents/consumer-industrial-products/cip-2018-global-powers-retailing.pdf>]
- DESMARAIS, Annette Aurélie (2007). *Vía Campesina*. Pluto Press.
- FERNANDEZ, Gonzalo (2018): *Merkataritza-hitzarmen olatu berria. Enpresa-blindajea mehatxu bat gure bizitzentzat*, OMAL-Paz con Dignidad. Urria.
- GUZMÁN, Gloria; GONZÁLEZ, Manuel eta SEVILLA, Eduardo (2000): *Introducción a la agroecología como desarrollo rural sostenible*, Mundi-Prensa arg., Madril-Bartzelona-Mexiko.
- HERTEL, T.W. (2011): "The global supply and demand for agricultural land in 2050: a perfect storm in the making?" *American Journal of Agricultural Economics*, 93, 259-275.
- KOTLER, Philip; CÁMARA, D.; GRANDE, I.; CRUZ, I. (2004): *Dirección de marketing*. Prentice Hall argitaletxea, 10. edizioa, Madril.
- LEÓN, Xavier Alejandro (2018): *Soberanía alimentaria. Sistema agroalimentario, movimientos campesinos y políticas públicas. El caso de Ecuador*. Doktorego tesia, Hegoa, UPV/EHU.
- LÓPEZ, Daniel (2015): *Producir alimentos. Reproducir comunidad*, Colección Cartografías del vivir, Ecologistas en Acción, Madril.

- PRETTY, J.; TOULMIN, C.; WILLIAMS, S. (2011): "Sustainable intensification in African agriculture". *International Journal of Agriculture Sustainability*, 9, 5-24.
- RENTING, H.; MARSDEN, T.; eta BANKS, J. (2003): "Understanding alternative food networks: exploring the role of short food supply chains in rural development". *Environment and planning*, 35(3), 393-411.
- RIVERA-FERRE, Marta (2018): "The resignification process of Agroecology: Competing narratives from governments, civil society and intergovernmental organizations". *Agroecology and Sustainable Food Systems*, 42(6), 666-685.
- ROSSET, Peter eta ALTIERI, Miguel (2018): *Agroecología. Ciencia y Política*, Icaria arg., Bartzelona.
- SEVILLA, Eduardo; SOLER, Marta; GALLAR, David; VARA, Isabel eta CALLE, Angel (2012): *Canales cortos de comercialización alimentaria en Andalucía*, Fundación Pública Andaluza Centro de Estudios Andaluces, Consejería de la Presidencia e Igualdad, Junta de Andalucía, arg.; Sevilla.
- SNAPP, S. eta POUND, B. (2017): "Farming systems for sustainable intensification": Snapp, S. eta Pound, B. (ed.), *Agricultural Systems: Agroecology and Rural Innovation for Development*. Elsevier eta Academic Press, Londres.
- SOLER, Marta eta PÉREZ, David (2013): "Canales cortos de comercialización alimentaria en la construcción de sistemas alimentarios alternativos", en CUELLAR, Mamen, CALLE, Anjel eta GALLAR, David (2013): *Procesos hacia la soberanía alimentaria*, Ed. Icaria, Barcelona.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.

